



Giroa bero Ormaiztegin

Udal
hauteskundeak
Gaintzan

San Nikolas
eguna Seguran

2000. urteko
egutegia opari



h e m e n

DISEINU ALTZARIAK

URDANETA KALEA, 56 • 20240 ORDIZIA

TFNOA./FAXA: 943 88 46 41

KALITATEA ETA ZERBITZUA ZURE ESKURA
ETA ORAIN 24 HILABETETAN ORDAINTZEKO AUKERA



NEGUKO ESKAINTZA

Kolore aldaketa edo aurpegiko azalaren garbiketa egiteagatik

OPARI

Masajea edo ile mozketak

ILEAPAINDEGIA

Kolore eta itxura aldaketan espezialista

ESTETIZIENEA

Aurpegiko tratamenduak

TATOO ESTUDIOA

Diseinu pertsonalizatuak

BODY PIERCING

Arriskurik gabekoak

Kale Nagusia 40
(tarteko oina)

BEASAIN

Tel: 943 88 91 44



IPARRA ETA EDUARDORI OMENALDIA



Azaroak 27 Larunbata, gaueko hamarretan, Igarondo pilotalekuan.

HERRI KIROL JAIALDIA IDIAZABALEN

Olaberria eta **Aginaga** lehiak: Lasto proba--Gurdi proba--Txinga--Aizkora--Trontza--Koskol biltzea--Zaku lasterketa...

Ondoren Sokatira:

Olaberria

Sakanako neskak

Aginaga

Orendain

GIROA ALAITUZ JOSEBA IPARRAGIRRE TRIKITILARIA

HERRIA ERAIKIZ EUSKAL SELEKZIOAREN ALDE

EUSKAL PRESOK HERRIRA!!

SARRERA DOHAN

Non zer

6 ESKUTITZAK

7 **TXANDAKA:** Jexux Mari Mendizabal

9 **KATE MOTZEAN:** Iñaki Kanpos

10-11: Ormaiztegiko industria

12: Sanandresetako egitaraua

13: Burdinaren bideak

14-22 KRONIKAK

IDIAZABAL 14: Mikel Telleriaren diskoa

ORDIZIA 15: Antton Garcia de Molino

GAINTZA 16: Udaltzauteskundeak

ZERAIN 16: Bolari eta tokalari eguna

LAZKAO 17: Txorizugarrien lehiaketa

GABIRIA 18: Errezil sagarren lehiaketa

ZEGAMA 18: San Nikolas

ATAUN 19: Iker Sukia

ZALDIBIA 20: Kultur ekintzak

BEASAIN 21: Igartzia jauregiko musikaldia

SEGURA 22: Elorri elkarte

23: San Nikolas Seguran

24-25: Ziklo krosa: Iñaki Maiora

26-27: AGENDA

28 DEBALDEKO IRAGARKIAK

29 **ZAHARRAK BERRI:** Maria Isabel Zumalakarregi

30 **FOTO ZAHARRA:** Ormaiztegiarrak



Abenduak 18: GOIERRITARRAren 10. urteurreneko kontzertua


GOIERRITARRAren 10. urteurrena ospatzeko Euskaldunon Egunkariarekin batera antolatutako kontzertua abenduaren 18an izango da, Beasaingo Antzizar kiroldegian, gaueko 10,30-etan. Ruper Ordorikaren ahots arazoa zela eta atzeratu zen azaroaren 6an egin beharreko kontzertua.

Hiru Truku, Igelaren Banda, Ruper Ordorika & Mugalaris eta Tapia ta Leturia izango dira Beasainen. Txartelak aurrez jarriko dira salgai, 800 pezetan. Bertan erosiz gero, garestixeagoa izango da: 1.000 pezeta.

Txartelak aurrez salgai jarriko dira: Ataunen Bittor jatetxean, Beasainen Loinatz tabernan, Idiazabalen Xume tabernan, Lazkaon Alboka tabernan, Ordizian Baga Biga kulturgaiak dendan eta Pottoka tabernan, Ormaiztegin Itxune tabernan, Seguran Imaz tabernan eta Zaldibian Joxepane ostatuan.

Azaroaren 6rako txartelak erosi zenuituztenok eta lehiaketa ezberdinetan txartelak egokitutakook gorde txartelak, abenduaren 18rako ere balioko baitute. Txartelak erosi eta egun horretan joaterik ez duzuenoi, dirua itzuliko zaizue.

GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA Argitaratzailea: Goierritarrak Kultur Elkarte
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean) 124 posta-kutxa Ordizia Tfnoa: 94388 96 12 Faxa: 94388 27 19
Zuzendaria: Loinaz Agirre Maketazioa: Mikel Albisu Publizitatea: Argider Mujika Erredakzio
Batordea: Mikel Albisu, Joseba Telleria, Ane Martin, Loinaz Agirre eta Estitxu Imaz. **Zenbaki honetako kronista eta kolaboratzaileak:** Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Elordi Garzia, Nekane Altuna, Ederne Albizu, Agurtzane Bikuña, Gabino Murua, Saroi Jauregi, Iñaki Gurrutxaga, Aitziber Murua, Gurutze Izagirre, Mari Flor Mendizabal, Ana Kristina Olano eta Jesus Mari Mendizabal.
Fotokonposizio eta maketazioa: **GOIERRITARRA**. Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9, Oñati)
Tirada: 7.800 ale. SSN: 1132-0907 Lege gordailua: SS-926/89 Frankeo kontzertatua: 37/76
GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



**Eusko Jaularitzako Kultura
Sailak, Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta GOIERRIKO
UDALEK diruz lagundutako
aldizkaria**



'Nerabearen biluzia', Xabier Mendiguren Elizegiren aitorkizun-liburua

'Nerabearen biluzia' liburuan Xabier Mendiguren beasaindarrak 14-18 urte zitueneko garaia oroitu eta kontatu du. 1978-82 bitartean Tolosako Eskolapioetan BUP egin zuen garaia hain zuzen ere. Liburuaren aurkezpenean Kike Amunarriz izan zuen lagun. Zaharxeagoa izan arren garai horretan eskola berdinean ikasia. Xabier Mendigurenek bere lehen hitzetan argitu zuen 'Nerabearen biluzia' ez ez dela 'Gure barria 1975' liburuaren jarraipena. "Hura 1975 inguruan, zehaztu gabeko data batean, kokatua zegoen. Oroitzapenetan oinarritutako fikzioa zen. 3. pertsonan idatzia zegoen, 'ni' inoiz sartu gabe. Liburu berria zehazki 1978ko udazkena eta 1982ko udaberri artean dago kokatua. Nerabetza 'ni' deskubritzen hasten den garaia da eta lehen pertsonan idatzi dut. Guztiz errealitatean dago oinarritua eta bertako pertsonaia guztiak benetakoak dira".

Azken bi nobelak autobiografikoak idatzi ditu beasaindarrak eta irudimena agortu ote zaionaren susmoa uxatu nahi izan zuen. "98ko udan idatzi nuen 'Nerabearen biluzia' eta harrezkero ezer idatzi gabe banegoen ere, aurtengo udan zerbait idatzi dut. Ondo izanean datorren urtean argitaratuko da".



Bazterkeriaren aurka eta karta sozialaren aldeko martxa Goierriin

Bazterkeriaren aurka eta karta sozialaren alde Euskal Herrian egin den martxa Goierriin ere izan zen. Azaroaren 19an etorri zen martxa Ordiziara. Argazkia, martxari ongi-etorria egin zitzaioneko da.

Ainhoa Garmendia sopranoa

Legorretako sopranoak Jaume Aragal Nazioarteko kantu lehiaketan bigarren egin du.



Martin Alustiza

Salaberria, Beloki I eta Errasti kanporatu ondoren azken ligara iritsi da. Bertan, Oskar Goñiri 22 eta 17 irabazi zion lehen partidua. Hurrengo partidua Unanueren kontra jokatu beharko du, azaroaren 30ean Tolosan. Hirugarren partidua partidua Patxi Eugiren kontra izango du segurarrak.



MUJICA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN

Euskal Herrian Euskaraz: 20 urtez euskararen alde lanean

- 20 urte bete ditu EHEk. Zer balantze egiten duzue?

- Euskararen aldeko erakunde honek lan asko egin ohi du bi hamarkada hauetan eta, jakina denez, hainbat ekimen garrantzitsuren aldarrikapen zein sortze prozesuan aintzindari izan da: ikus EITB, UEMA, Euskara batzordeak udalengan... Ildo beretik, gaur egun ere, euskararen aldeko aldarrikapen nagusien bultzatzaile eta sustatzaile da, hala nola, euskararen ofizialtasuna Euskal Herri osoan, euskal irakaskuntzaren aldeko ekimenak...

- Euskara osasuntsu al dago?

- Euskaraz bizitzea egun ezinezkoa gertatzen zaio euskal herritar orori, besteak beste nazio mailan, Euskal Herri- tik irten gabe euskaldunok gure eskubideak urratuta ikusten ditugulako: euskaren ofizialtasun eza Euskal Herri



osoan, euskaraz ikasteko eskubide eza...

- Euskararen aldeko kontzientzia handiagoa al da?

- Euskararen aldeko giroa zabaldu da gizartearen ikasturte honetan. Bost hiriburutan eginiko Bai Euskarari ekitaldi erraldoia horren erakusga-

rri izan zen, euskal lurralde guztietan dagoen sentimendu eta atxikimendua dela agerian utziaz, gainera. Euskarak aurrera pausuak behar dituela eta erasoek lekuri ez dutela aldarrikatu da aurtan Euskal Herria osoan eta milaka izan dira horretan parte hartu duten herritar- rarak, Normalkuntzare- kiko aldekotasuna Euskal Herri osoan isladatuz.

- Hemendik aurrera zein bide jorratuko du EHEk?

- Aurrerantzean gure zereginak ez dira gutxi izango. Euskal Herriak bizi duen egoera eta ematen ari den prozesu politikoak beharrezkoa egiten du, ezinbestekoa ez esatearren, euskararen aldeko jarrera dugunok etengabe gure presentziarekin Euskal Herriko hizkuntzaren aldeko eskenatoki, neurri eta konpromezuak bultzatzea, Euskal Herria euskaldunaren al-

deko hautua bermatu nahi badugu: Euskal Eskola Nazionala, komunikabide euskaldunak, euskararen ofizialtasuna Euskal Herri osoan, Kontseiluen sortzea herrietan...

- "Euskararen Tunela" rekin zer adierazi nahi duzue?

- 20. urteurren honekin euskararen aldeko mezua indar handiagoarekin zabaldu nahi genuke. Izan ere honek aukera eman diezaguke hogeitau urte hauetan euskarak izan dituen gora-beherak baloratu, egungo egoera aztertu eta etorkizunean ditugun erronkak identifikatzeko. Horretarako, "Euskararen Tunela" izena duen erakusketa baten inguruan antolatu nahiko genituzke ekimen guztiak. Erakusketa hau, beste ekimenak bezala, karpa batean kokatu asmo dugu. Ekimenak aste- beteko iraupena izango du eta erakusketaz gain hitzaldiak, euskalgintzaren afaria, gazteentzako musika kontzertua, pailazoak... antolatuko ditugu. (Ikus 27. orria)

ZUHAIZKI
S. A. L.
ZURGINDEGIA



✕ LEIHOAK, ATE-
AK eta abar
✕ ESKAILERAK
NEURRIRA



Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa
20491 LEABURU
Tfnoa.: 943 67 36 11
Faxa: 943 67 36 55



Barandiaran
ZERAMIKAK



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatz eta egurrezko sukaldeak

☎ 943 88 79 72 **Senpere, 7 BEASAIN**

Biloren 150 lanpostu gutxiago

Aldizkari honek ekartzen dizkit gehienetan Goierri eskualdeko berriak, baina oraingoan Balentziatik adierazi nahi dizkizuet Biloreko lantegian (Zaldibia) izandako arazoak. Inork gutxik jakingo duzue azkenengo urteetan egindako eraberritze basatiaren berri, zeren 150 lanpostu baino gehiago gutxiagotu dituelako.

Gutxiagotze hau Zaldibiatik kanpora zituen lantoki edo delegazioetan egin du, toki horietan ginen langile gehienak kanporatuz. Enpresaren jokaera erabat basatia da, itsua izan da nire ikuspuntuz. Ez du kontuan eduki zigortutako langile bakoitzaren egoera. Nahiz eta urte askotan lantegiari itsatsitako langileak izan, edo aurrejubilaziotik gertu egon, Biloren helburua langile horiek kaleratzea besterik ez da izan, lan arteko hitzarmenak bat-batean bere aldetik etenez.

Enpresako Langileen Batzordeak, nik dakidanez, ez du ezer jakin nahi izan, lantegiko zuzendaritzari bere asmo ozpinduetan bidea zabaltzeki utzirik. Zaldibiatik kanpora ginen langileak ez

dugu inongo laguntzarik izan zuzendaritzaren zigorpean, beraren morroi edo oinpeko bagina bezala.

Langileen Estatutoak, 52. atalean, egoera gorrian dauden enpresari, beharrezko irtenbide bezala, langileak gutxitzeko ahalmena ematen die, diru apur batzuen ordez. Eta Bilorek adierazi nahi izan duenez, urte askotan egoera oso larrian omen dago, eta bere kalte ugariak gaintitu ahal izateko, langileak gutxitzeko bidetik jo du, baina gehientsuenak Zaldibiatik kanporakoak. Horregatik, jokabidea itxuraz legala bezala jantzirik egon, nire iritziz erabat basatia eta itsua izan da, aurre hizketarik gabe, egon zitezkeen beste irtenbiderik aipatu edo ikusi gabe, elkarrizketa giroa zapalduta.

Elkarlanak sortuarazitako aberastasunen banaketa zuzena zer den gogoan eduki gabe. Gure gizarteko zuzentasunaren sustraia erabat zapalduak izan dira langileak gutxitzearren. Langile baktien urrutitasuna egoki etorri zaie banaka-banaka kaleratzeko eta bere asmo ozpinduak aurrera eramateko, orain guxi arte beharrezko zituen langileak botatzeko. Ni neroneri, nahiz eta ur-

te askotan Biloren ordezkari Balentzian izan, ez didate sorterrira itzultzeko eskubiderik ezagutu nahi izan, Zaldibiako lantegian ez omen da niretzako inongo tokirik.

Langabezia nire urtetan oso mingarria bada, erabili duten jokaera lotsagarria bada, aipatutako eskubide hau ez ezagutu nahi izateak, odola irakin arazten dit, eta gainera, nire zigorra beste batzuentzat diru aberastasun gertatuko delako. Horrela joan gara 150 baino gehiago langile kalera. Ni Goreneko epaimahaiaren erabakiaren zain nago.

*Esteban Otegi
(Balentzia)*

Utzi bakean euskal gazteria

Beste urte batez ere ikasleoneguneroko joan etorria aztoratua izan da. Berriro Guardia Zibilak ikasle bat geratu, katxeatu, aztertu eta itaunketa baten biktima izan da euskalduna eta gaztea izatea delitu duelarik. Goierri Lanbide Eskolako 446 ikaslek eta 14 irakaslek, gazte honi gure elkartasuna adierazteaz gain, Guardia Zibil eta antzeko in-

dar armatu polizialei gazteria eta ikasleria pakean uzteko eskatzen diegu.

*Goierri L.E.ko
ikasleen ordezkariak*

'Goimen produktions'i buruz zuzenketa

Aralarko lurretan egin nahi duten 'El Halcon Blanco' filmearen erantzunkizuna 'Goimen produktions'i atxekitzen genion, eta zuzendu nahi dugu esanez erantzunkizun guztia Enirio-Aralar Mankomunitateari dagokiolara. Beraiek erabaki baitzuten azaroaren 3an ospatu zen bileran. Emaizta, produktoreari baimena ematearen alde 6 botu, aurka 5 eta abstentzio 1 izan zen.

*Goierri A.H.T.ren
aurkako asanblada*

Zuzenketa

Inazio Irastorzak lehenengo egin zuen Zaldibiako Aralar-ko gazta txapelketan eta ez 2., aurreko alean jarri genuen bezala.

Goierritarra

OSKARBI
OINETAKOAK



Mota guztietako eta adin guztientzako oinetakoak.

Kickers

K. Nagusia, 25
88 19 44 ORDIZIA

JOS & BEL
ILEAPAINDEGIA

Urdaneta, 15 ☎ 943 88 82 52 ORDIZIA



- Azken teknika eta nobedadeak
- Ezkontza eta ospakizunetarako orrazkera bereziak
- Tratamendu bereziak: eguzkitarako, ile erorketa, e.a.
- Makilajeak, Manikura...



Presio altuko solariuma

Ander deunaren jaiak Ormaiztegin

Joakin
Irurzun

Egun alaiak badatozkigu
herri jaiak Ormaiztegin
guztiok ongi ospatu asmoz
Ander zure laguntzakin
Iñoiz denbora txarra izanik
elurra edo izotzakin
baina odolki ederrak janez
ezta oroitzen hotzakin
anai-arrebak festeja zaigun
umoretsu ta pozakin

Gaztetatikan beti izan det
Ormaiztegin aditzera
zubi haundi bat badaukala ta
horixe nahi ikustera
Azkaratetik etorri nintzan
beste batzuekin batera
gero handikan urte gutxira
bertara bizi izatera
txoko politan erori nintzan
jende jatorran tartera

In Remisionem...

Iñaki Muruarena zirudien GOIERRITARRAko
'Txandaka' sail hau izenaren merezimendu zuzenera
ekartzen haste aldera, niri gomendatu didate aste
honetakoa. Zer egingo, eta gabiriarrari hots egin nion
atzo nondik norakoen eske. Zer emango, eta lau oin
soil eman ez zizkidan, ba, biligarro halakoak? "Otok
--esan zidan--: kezka, iheska, protesta, festa".
Eskerrak harrapatu ninduen egunkaria galtzarbean
nuela, TBa pizturik, Juan Kruz lagun zahararen
'Herrenaren arrastoan' liburuxka mahai gainean zabalik eta
'Ormaiztegiko Ander Deunaren Jaiak' programa ikusmiratzen
ari nintzela...


Kezka. Edo egunkariarena. Ai ene, munduaren martxa! Ez
dago amaren semerik (edo aitaren alabarik; ez gara horretan
sartuko) hau konponduko duenik. Harako triskantza krudelak, zerako gose-
miseria gorriak; bateko azpijoko kriminalak, besteko hitz-jario azken gabeak
eta elkar ulertu (nahi) ezinak... Bien bitartean, batzuk astoa garagarra
irabazten baino gustorago, eta besteak zakurrari baino kaso gutxiago egiten
zaiela. Gainera, to!, Ameriketako Atlantikoa bildu dira kardiologo
jakintsuenak, munduan direnik argienak, eta asmatu dute bizitzak ez diola
onik egiten bihotzari: zenbat eta egun gehiago bizi, orduan eta paltalago.
Ño...! Alderdi on gutziak ezin parean etorri.

Iheska. Edo telebistakoa. 'The world's circus'-aren funtzioa dibertigarria
dago, ederra da, merezi du... Jakina da mundua ere zirkoa dela. Badira
antolatzaileak, pailasoak, ekilibristak, hezitzaileak, malabaristak, animaliak...
Eta zirkoko elefanteen 'tartalo' (kaka) biltzaileak bullan dabilta esaka:
"Mundua kaka da! Mundua kakazaharra da!" Berentzat egia berdaderoa
horixe izan arren zinez, osasungarria da gainerakoontzat ezkor burumakurren
aldarrietatik ihesi ibiltzea. Ihesi, koanto, halako sermoilari beltzengandik.

Protesta. Edo liburutikoak. "Habil txintxo, moteill. Hori den kuxidadea,
neska! Gizonak serio behar dik, zentzuko..." Halamoduz ari zaizkigu auzoko
txoro flauta putzarroak. 'Herrenaren arrastoan' liburutik: "Zuhaitzik
tenteenak ere, sustraiak oker". "Batzuk oso serioak dira, horixe besterik ez
dira". Eta nik diot, pekatari gabe biziak ez duela barkamenik.

Festa. Edo Sanandresak. Hau argitaratzearekin bateratsu, zu hau letzen ari
zaren honetantsu, festetan gara ormaiztegiarrak, kantu eta irri, zurrut eta
zirri, Kantiña zenaren kojuruarekin: 'Aizkorri, Aralar, trintxera, batallon... In
remisionem pektorum nostrorum. Amen'.

Bizi beharrak ekartzen digu / zenbat egun hainbat kezka
eta bihotza bai jartzen ere / makur aldiei iheska.
Munduko zirko serioari / eginenean protesta,
aukerakoa pekatariok / Ormaiztegin dugun festa.



Jesus Mari
Mendizabal



XENKEGI
ETXE-AROZKINTZA
Diseinuak neurrira

Erakusketako Tel-faxa: 943 889113
Tel mugik.: 619 487056
Senpere Merkatalgunea, 25

Sukaldeak
Ateak
Zorruak
Armairuak

BEASAIN





Ana Kristina Olano

Siboney estetika
zentrua

Mikropigmentazioa

ren ordezkotik bezala aplikatu behar da. Mikropigmentazioaren azkeneko helburua eguneko 24 ordutan irudi perfektu bat erasotatuz mantentzea ahalbidetzea da, baina naturaltasunez, sofistikaziorik gabe.

Mikropigmentazioarekin ezpainen bolumena piska bat haunditu, bere marrazkia markatu, bere ziluetan zuzendu eta nahi

dugun tonua eman diezaiokegu. Bekainaren arkuak zuzentzea ere posible da, bere egitura aldatu edo existitzen ez dena sortu. Begien kasuan tratamenterik gomendagarriena, betileen betetzea da, optikoen bolumen handituz eta betazalen lerroa zuzenduz.

Bitiligoaren berpigmentazioa, orbainen eta erretako azalen disimulazioa, mamaria-areolen berreraikitzea ere posible da, kamuflajerako beste teknika batzuen artean. Bataz beste, emaitzak bi edo hiru urte iraun dezake.

Ez da inolako kontraindikaziorik, izan ere proba alergikoa egiten baita segurtasun handiagorako. Akzesorio guztiak behin erabilitakoan bota egiten dira. Hauek bereztuta eta esterilizatuta etortzen dira.



Mikropigmentazioaren helburua etengabeko eta aldi baterako aurpegieraren edertzea eta zuzentzea da, zeinak denborarekin aldatuak izan daitezkeen moda eta gustuen aldaketagatik edo pigmentatutako guneetan ahuleziaren bat edo zimurren bat agertzeagatik.

Tekniko espezialistak mikropigmentazioan bisagistak gara, begien, bekainen eta ezpainen zuzentasuna, simetria eta harmonia aurkitzen ditugu. Inoiz ez da makilajea-

Lehiaketa

Galdera

Xabier Mendiguren
Elizegik 'Nerabearen biluzia' liburu kaleratu berrian batxilergoa egin zueneko oroitzapenak kontatzen ditu. Non egin zuen batxilergoa Xabier Mendigurenek?

Erantzuna abenduaren 1erako bidali behar da, Ordiziako 124 posta-kutxara. Bertan izena, helbidea eta telefono zenbakia zehaztuz

Saria 'Nerabearen biluzia' liburu eta GOIERRITARRAREN kamiseta.

Aurreko irabazlea

Aurreko galderaren erantzuna
Eleuterio Jauregi da.
Irabazlea:

Juani Aizpurua (Ataun)

lues rothers
BEASAIN

OSTEOPATIA
Jose Gisasola Dr. Koleg. Zkia. 3998
BIZKARREKO MINAREN ESKUZKO TRATAMENDUA
R.P.S. 213/97
● LUNBAGO, ZIATIKA, HERNIA DISKAL
● ZERBIKALGIA, ZEFALIA, MIGRAINA, ARTROSIS.
Eskatu ordua: ☎ 629 45 20 53 - 943 88 92 22
Andra Mari, 13 behea ez. - BEASAIN

OSTATUA



Juanito Rubio



Oianguren parkea
☎ 943 88 91 06
ORDIZIA

JATETXEA

BABARRUNAK ETA BASERRIKO OILASKOA

Eguneroko menua,
Enpresa menuak,
Asteburueto menu bereziak,
Ospakizunak, Banketeak,
jaunartzeak, ezkontzak...

8, 20 edo 150 mahaikiderentzako jantoki ezberdinak

Euskara txukunean

Besteak beste

Besteak beste, badugu beste trakeskeria bat hedatzen ari dena euskaldunberri eta gaztetxoan artean batez ere, eta gainera gure baserrietan eta aiton-amonei inoiz/sekula entzun ez dieguna:

Gaizki

Beste egunean, alegia. Beste egunean ferian ikusi zintudan. Esaldi hori ez da batere egokia eta zuzena. Ideia hori adierazteko baditugu hainbat eta hainbat forma eder askoak.

Ondo

Aurrekoan ferian ikusi zintudan, Aurreko batean ferian ikusi zintudan, Aurreko egunean, Lehengoan, Lehengo batean, Lehengo egunean, Joan den egunean...

Gaizki

Bestalde, etorkizuna adierazi nahi dugunean ere ezin da *Beste egunean* erabili. Ez da egokia *Beste egunean etorriko naiz* esatea.

Ondo

Beti esan/entzun dugun bezala esan behar da: *Beste egun batean etorriko naiz* edo *Beste batean etorriko naiz*.

Beraz...

Beraz, badakizue, *Beste egunean* ez da zuzena, ez erabili eta zuen ingurukoei ere zuzendu.

Odolkiak egiteko momenturik onena?
Eguraldia hozten denean.

Eta jateko?
Eguerdia.

Odolkiak egiteko sekretua:
Esaten baldin badut, ia ez da sekretua izango.

Odolkia, Beasaingoa ala Ormaiztegikoa?
Ormaiztegikoa noski.

Mondejua ala odolkia nahiago?
Biak berdin.

Odolkia laguntzeko edaria?
Errioxako ardo beltza.


Norekin egingo zenuke odolki jana?
Gustora aurkitzen naizen edozeinekin.

San Andresetarako plan bat:
Ondo afaldu, buelta txiki bat eman eta hobeto lo egin.

Zer jarri, zer kendu, zer hobetuko zenuke Ormaiztegin?
Jarri, etxebizitza berri merkexegoak; kendu, Zumalakarregi kalean dauden piboteak; eta hobetu, aurreko biak betez gero hobetuko da zerbait.

Oporretarako leku bat?
Hondartza.

Amets bat?
Denen arteko pakea.



Iñaki Kanpos

Harakin eta odolki gile ormaiztegiarra



80 pertsonentzako tokia

Sagardotegi-bodegako menuak

BABARRUN JANA

- ✕ Babarrunak odolki eta azarekin
- ✕ Baserriko oilaskoa
- ✕ Etxean egindako postreak
- ✕ Bodega: Luberrri (beltza), Malon de Echaide (gorria)

2.300 pta.

SAGARDOTEGIKO MENUA

- ✕ Bakailu tortila
- ✕ Bakailu takoa piperradarekin
- ✕ Txuleta brasan errea
- ✕ Etxeko postreak
- ✕ Bodega: Luberrri (beltza), sagardoa txotxean

2.400 pta.

MENU BEREZIA

- ✕ Iberiar urdaiazpikoa
- ✕ Bakailu eta baratxuri feskoz beteriko hojaldreak
- ✕ Ahate magreta edo txuleta brasan errea
- ✕ Etxeko postreak
- ✕ Bodega: sagardoa txotxean, Luberrri (beltza), Malon de Echaide (gorria)

2.900 pta.

ZEZILIONEA
OSTATUA
☎ 943 885 829
Herriko plaza **OLABERRIA**
Etorri eta egin menua zure neurri!

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak



☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN

Arkupe

tapizegia
Tapizeak - Ohe estalkiak - Endredolak
Mantak - Malndireak - Storeak
Toallak - Gortinak eta osagalak

J. M. Barandiaran Plaza

☎ 943 88 00 84

ORDIZIA

Egitaraua

Azaroak 26, ostirala:

16:00etatik 19:00etara:

Txindata trikitilari taldearen kalejira.

16:00etan: Puntu txapelketa jubilatuen elkartean.

19:00etan: Txindata musika eskolako ikasleen kontzertua, Kultur aretoan.

20:30ean: Festen hasierako suziria.

23:00etan: Eider eta Oihana triki taldea, Itxune ondolan.

Azaroak 27, larunbata:

12:00etan: Haurren danborrada.

13:00etan: Mozorroturiko lagun taldeek herriko kaleak alaituko dituzte Lazkaoko Antzar Gazteak txarangarekin.

16:00etan: Mus txapelketa jubilatuen elkartean.

19:00etan: Helduen mozerro desfilea, dantza eta sari-banaketa Zubipe kiroldegian.

23:00etan: 'El corazon del sapo' eta 'LIF' taldeen kontzertua Itxune ondoko plazan.

Azaroak 28, igandea:

Jubilatuen eguna:

Egun guztian zehar haurrentzako parkea izango da Zumalakarregi enparantzan.

11:00etatik 14:00etara: Odolki osagaien azoka eta lehiaketa enparantzan.

12:00etan: Meza Nagusia Ander Deunaren elizan.

12:30ean: II. Ziklo-kross proba herrikoia.

12:00etatik 14:30era: Koldo Trikitixa eskolako trikitilariak.



13:30ean: XIII. Ormaiztegi-ko Odolki lehiaketaren sari-banaketa, herriko enparantzan.

19:00etan: Herri kirol jaialdia: Arrospi-Mindegi eta Azurmendi-Mugerza, Lapazaran eta Muniosguren.

Azaroak 29, astelehena:

Haurren eguna:

16:00etan: Toka, igel eta bote txapelketak jubilatuen elkartean.

17:00etan: Txokolate jana.

18:00etan: Gasteizko Panta Rhei antzerki taldearen 'Txintxilipurdi erregea', Zubipe kiroldegian.

Azaroak 30, asteartea:

Ander Deunaren eguna:

11:00etan: Meza Nagusia.

12:00etan: Gorriti eta bere animaliak, plazan.

12:45ean: Udalak eskainitako hamaiketako enparantzan.

18:00etan: Kiki, Koko, Moko eta Flax plazan.



Comercial MARKEL

Zumarralde, 2
Tfnoa - faxa:
943 16 15 56
ORMAIZTEGI

✕ Iturgintza eta elektrizitatea

✕ Berogailuak

✕ Burdindegia

ELEKTRAGAILU DENDA

MURUA harategia

- Bertako haragia
- Odolki eta txorizoak



Maiora plaza ORMAIZTEGI ☎ 943 88 27 64

SAGARNA



ARRANDEGIA

☎ 943 88 68 73 (denda) ☎ 943 16 02 01 (etxea)

Zumalakarregi, 4 **ORMAIZTEGI**

KUKO

Jatetxea

Kuko, gure txef-ak zure sabelak eskertuko duen menua eskeintzen dizu:

Astelehenetik ostiralera menu bereziak.

Toki mugatua dagoenez eskaerak aurrez egitea komeni da.

On egin diezazula!

Berjadegi plaza z/g
☎ 943 88 28 93 **ORMAIZTEGI**

ESTANKO

janaridenda

- ✕ Egunkari eta aldizkariak
- ✕ Opariak
- ✕ Eskolako gaiak
- ✕ Mertzeria

Festa onak pasa!

☎ 943 88 77 24
Serapio Mujika Plaza, 3
ORMAIZTEGI

KEMEN



KIROLAK

Jai zoriontsuak denoi!

Zumalakarregi, 1
☎ 943 88 51 68
ORMAIZTEGI

Zerain, Legazpi eta Ormaiztegi: 'Burdinaren bideak'

Zerain, Legazpi eta Ormaiztegi herriak elkartu eta 'Burdinaren bideak' proiektua martxan jarri zuten duela urtebete. 2.000 bisitari izan ditu dagoeneko ibilbide honek. Azaroaren 12an aurkezpen ofiziala egin zuten Gipuzkoako Foru Aldundian., bultzada handiagoa eman nahian. Euskal Herriaren historiaren oinarri izan den burdinaren historia ikus eta ikas daiteke ibilbide honekin.

Zerainen, Aizpeako meategietan, burdina nola ateratzen zenaren aztarnak ikus daitezke. Galeriak, mina-zuloak, bolborategiak, trenbideak, biltegiak, ikaztegia, hiru kaltzinazio-labe eta teleferiko eta tunelen bidez Ormaiztegiraino iristen zen mea eta harrikatza garraiatzeko katea.

Legazpiko Mirandaolako



Hiru udaletako, Diputazioko eta Jaurlaritzako ordezkariak, Diputazioko aurkezpenean.

parkean dagoen burdinolan burdina lantzen zen. Ubidea, aldaparoa, ur-gurpilak, auspoak, ingudea, gabia... erabat zaharberriturik daude gaur egun. Diaporama berezia prestatua dute legazpiarrek, Legazpiko haraneko burdinaren bilakaera erakusten duena.

Ormaiztegin dago burdinaren aplikazio esanguratsua. 18.000 tona burdinez eraikitako 289 metro luzeko

trenbidea dago bertan. Alexander Lavalley ingeniariak 1864. urtean eraikia da eta burdinezko zubi hau Madril-Irun trenbidearen obrarik auserena izan zen. Zumalakarregi museoak XIX. mende hori gehiago ezagutzen eta ulertzen laguntzeko aukera ematen du.

Burdinaren garrantzia

Hiru herri hauetan burdinak garrantzia handia izan du

historian zehar. Andoni Alustiza Zeraingo alkateak aurkezpenean adierazi zuenez, burdina 3. sektoreran pasatu nahi dute 'Burdinaren Bideak' proiektuari esker, burdina turismoaren alorrera eramane eta etorkizunaren zati bilakatuz.

Ormaiztegiko burdinezko zubia oso garrantzitsua izan da eta gaur egun bigarren zubi bat eginda badago ere, zubi zaharrari etekina atera nahi diote ormaiztegiarrek, turismorako prestatuz.

Bost orduko ibilbidea

Egun bateko produktu turistikoa da 'Burdinaren bideak'; bost bat ordukoa, goiz eta arratsaldean banatua. 900 pezetako kostua dauka. Bertan parte hartu nahi dutenentzako hiru telefono daude aukeran: Ormaiztegiko Zumalakarregi museoak: 943-889900; Zeraingo Turismo bulegoa: 943-801505; eta Legazpiko Mirandaolako parkea: 943-730428.

ARRANDEGIA
San Andres, 31
☎ 943 882772 (etxea)
☎ 943 161366 (arrandegia)
ORMAIZTEGI

MURUA TABERNAk
Jai zoriontsuak opa dizkizue!
☎ 943 16 30 03 **ORMAIZTEGI**

ORDIZIA
AUTO-ESKOLA
Aita Urdaneta
☎ 943 88 72 76

ITXUNE ERRETEGIA



Gazte giroa

- **Taberna musikala.** Larunbat gauetan karaokea
- Etxeko sukaldaritza
- Eguneroko menua 950 pzta.
- Pintxo, ogitarteko eta ifernuko txorizoa

Gabirialde, 14

☎ 943 88 73 51 - 943 88 89 92
ORMAIZTEGI

Ba al dakizu Ormaiztegi, Europako herri industrializatu-enetakoa dela biztanleak proportzionalki hartzen baditugu? Ezaugarri honek berezi egin du Ormaiztegi eta honako lerrook, gure industriaren historia aztertzea dute helburu.

Ormaiztegiren lehen produkzio aztarnak, herriaren bi mugetan aurkitzen ziren bi irin errotak ematen digute. Bata, Lapatza-Errota izeneko, Gabiria aldera. Bestea, berriz, Iraegi-Errota-Goikoa izenarekin azaltzen dena. Ormaiztegitik Beasain alderako bidean. Eztanda ibaiak zekarren uraren indarraz baliatzen ziren eta XIX. mendean zehar irina ekoiztu zuten.

● Azurmendi (1917-98)

Mende honetan aurrera eginenez, Lapatza ondoko Arbil-datarren txikori fabrika ere azaltzen zaigu, Santa Luzia ibaiaren ertzean eta Beasain-Zumarraga errepide ondoan zegoena. Hau, ordea, XX. mendearen hasieran itxi (1917) eta Juan Azurmendik erosi zuen, bertan ganaduarentzako perrak egiteko leku ezin hobe egokitu zitzaion eta. Milaka kilo perra saltzen zituzten trenean sartu eta atzerrira bidaliz, horregatik Gipuzkoako Foru Aldundiak hainbat sari eskaini zizkion. 1945ean, Jose Azurmendik hartu zuen bere aitaren lekua, eta modernitatearen lehen aztarnak azaltzen dira ganaduarentzako perrak egiteaz gain, laminazioak ere



egin baitzituen. 1988an, Iñigo Azurmendik, Joseren semeak, hartu zuen lekua 1998 arte. Itxi arteko bidean, azken 20 urteetan, Euskal Herrian eta Espainian egon den perra fabrika bakarra izan da.

● Irizar (1889tik)

XIX. mendean, herriko hainbat gazte bere lanbidea jorratzen hasiak ziren. Jose Francisco Irizarrek, gurdientzako gurpilak egiten hasi zen. Urteen poderioz, lantokia bere seme ziren Joselontxo eta Ziziloren esku geratzen joan zen heinean, gurpilak gurdia bihurtu ziren, eta gurdi horiek, Irizar abizenarekin, mundu osoan zehar paseatzen diren luxuzko autobusak dira gaur egun.

Lantoki honek, errementari eta arotz lanak egiten zi-

tuen langile baten eskutik ezagutu zuen jaiotza, eta ondorengoek ere, aitaren lanari eutsi zioten. Jose Franciscoren semea zen Jose Cruz Irizarrek, Urbietta zelaian 'San Antonio' izeneko altzari lantegi oso ospetsua izan zuen. Jauregi eta jende ahaldunek Ormaiztegiko altzariak nahi izaten omen zituzten. Trebetasun handia lortu zuen egurra tailatzen Frantzia egin zituen ikasketei esker, berekin batera, Frantziako bi tailista ere lanean aritzen ziren, 1936an lantegia itxi zuten arte.

1946an Zizilion semeek hartu zuten enpresaren ardurara 'Sozietate Familiarra' bihurtuz. Orduan hasi ziren autobusetan espezializatzen. 1962an Irizar kooperatiba bihurtu zen. 1991. urtean ix-

tear egon bazen ere, gaur egun Txina, Maroko, Brasil eta Mexikon lantegiak izateaz gain, munduko 44 herrialdetan Ormaiztegiko autobusak koloretsu eta bizirik ikus ditzakegu.

● Letag (1955tik)

Zentzu berean heldu zion Jose Maria Lasak bere lantegiari. Egunez Lazkaoko Albisu fabrikarentzat lanean aritu ondoren, gauean lanean jarraitzen omen zuen. Forjalaran egiteaz gain, Albisuneko dinamoa erabiltzen ere ikasi zuen. Mekanika zale amorratua izaki, bere aitak, Ermita etxearen aldamenean eraiki zion etxean, tailer mekanikoa jarri zuen martxan 1916an. Konpontzen zituen motorrak, bere kabuz sortzeko prest ikusi zenean, moto-

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



*gizarte-ekintza
obra social*

rrak produzitzeari ekin zion. 1924an Etxeberri azpiko sorro batzuk erosi eta 600 metro karratu izango zituen lantegia eraiki zuen. Baina eraldaketa ez zen hor amaitu lana ugaltzean tailer berria egitea erabaki zuten. 1955. urtean Gabiriako Larreateari erosi zieten 4.000 metro karratuko orubean eraiki zuten Tailer Berria izenez ezagutu izan dena.

Aipatu urteko irailean Onena utzi eta 'Construcciones Electromecanicas Letag S.R.C. - Lasa Hermanos y Garmendia' deituriko enpresa sortu zuten Ignazio Garmendia, Jose Ramon eta Miguel Lasak. 1962. urtean berriaz Jose Ramon Onenara itzuli bazen ere 1968. urtean motore elektrikoak konpontzeko enpresa ireki zuen. Gaur egunera arte 'Construcciones Electricas de Gipuzkoa' izenez ezagutzen dugu-na.

Jose Mari Lasa 1975. urteko maiatzaren 23an hil zen. Ordu ezkerotik eta itxi bitartean, lantegiak 'Hijos de Jose Maria Lasa S.A.' izena hartu zuen.

Gaur egun 75 langile ditu Letagek. Enpresa honen has-tapenetan pulidora handiak, garabientzako motorrak, eta abar egiten hasi ziren. Beranduago alternadoregintzan sartu ziren. 1992-1993 urteetan serieko lana alde batera utzi eta motore berezietan espezializatu zen. Merkaturik garrantzitsuenak Euskal Herrian badu ere, Madril, Holanda, Frantzia, Alemania, Danimarka eta Norvegiara ere iristen da.



● Ceramicas Zelaikoa, Hijos de Andres Telleria, S.A. (1915-80)

Jose Maria Lasaren lantegia-ekin bateratsu hasi zen Zelaiko Telleria teilak egiten. Ormaiztegi zituen lehen-gaien artean, teilak egiteko buztin ezin hobea eskaintzen zuten. Honi etekina ateratzen jakin zion Gabiriako Alkain baserriko Andres Telleriak (1915). Bertako buztina erabiliz teilak egiten zituzten, gero karobi antzeko zulo batean erre edo egosiz. Belau-naldi berriak sartzean 'Ceramica Zelaikoa Hijos de Andres Telleria, S.A.' sortu zu-ten. Hauek, lantegiari gara-pen handiagoa eman zioten, Nafarroa nahiz Arabara teila kamioikadak bidaliz. 60-70. hamarkadatik aurrera ordea, Kataluniako teila sartzen ha-si zen, hau meheagoa eta ari-nagoa zen eta etxe egileek nahiago zuten, honi aurka ezin eginik, 1980an ateak itxi behar izan zituzten.

● Garcia tinta eta pinturak

Aipatu beharreko beste lan-tegia XX. mende hasieran eraikitako 'Tintes y pinturas Garcia' izenekoa da. Torre etxearen aldamenean lana egin ondoren, gaur egun, tren geltokirako bidean, ezkerre-tara dagoen Garcia-Enea ize-neko etxea eta lantokia eraiki zituzten.

● Contrucciones Electricas Gipuzkoa (1968tik)

'Contrucciones Electricas de Gipuzkoa' enpresa 1968an sortu zuen Jose Ramon La-sak. Hastapen urte haietan lau langileez osaturiko en-presa honek motor elektriko-ak konpondu eta garabi, ur motor eta abarrentzako mo-tor berriak egiteari ekin zion. Bere espezialitatea motor elektrikoetan duen enpresa honek etenik gabeko bilakae-ra jasan izan du urte luze hauetan, gaur egun 24-25 langileez osaturiko enpresa sendo baten aurrean aurki-

tzen garelarik. Langilegoa-ren artean Jose Ramonek ha-sitako bideari jarraitu dioten ondorengo bi belaunaldieta-ko Lasatarrak aurkitzen dira bertan aritzen baitira Jose Ramonen seme, alaba eta bi-lobak ere.

Enpresaren garapenak be-rak lantegi berrien eraikuntza ekarri zuen, orain bi urte Garciatarren lantegia utzi eta 1.800 metro karratu dituen pabilioi berrira aldatu zirela-rik. Gaur egun enpresaren ekoizpena igogailuentzako motor elektriko berriak egi-teen oinarritzen da. Merka-tuaren gehiengoa Gipuzkoa, Santander eta Valentzia du.

● Imeguisa S.A. (1959tik)

'Industrias Metalicas de Gui-puzkoa S.A.' laburtuz Ime-guisa Elkarte Anonimoa, ize-nez ezagutzen den Ormaizte-giko enpresa hau 1959. urte-an sortu zen. Hastapen haie-tan enpresa honek lehen urratsak sei langilerekin eman bazituen ere, gaur egun 50 langile inguruko lan tal-dea ari da bertan lanean. He-daduraz ere hiru aldiz han-diagoa da.

Metalezko apaleria eta ba-tez ere azken urte hauetan edukin-ontzi metalikoen ekoizpena ditu bere produk-zioaren euskarri. Edukin-on-tzi metalikoak berebilen pie-zak gordetzeko erabiltzen di-tuzten berebil enpresa nagu-sienei saltzen dizkiete, Re-nault, Seat eta Opel.

Gurutze Izagirre
Aitziber Murua



MUJIKA Jatetxea

- ✓ Menuak kartan
- ✓ Ezkontza eta janaldietan be-rezituak

☎ 943 80 15 07 - 943 80 16 99
Liernia Auzoa MUTILOA

JAUREGI TOLDOAK s/l

Tfnoak.: 943 88 02 43
943 88 01 33
BEASAIN

Mikel Telleria: "Oso barruan nituen kantak bildu ditut diskoan"

Abenduaren lehenengo egunetan kaleratuko da Mikel Telleriaren 'Deklarazioa' diskoa. Gaztelupeko hotsak disketxeak zabalduko du idiazabalarraren lehendabiziko lana. Folk-rock tradizioa ardatz hartuta musika erritmo eta klase ezberdinekin osatu ditu bilduma osatzen duten 12 abestiak.

Telleriaren lehendabiziko lana, denboraren eta ilusioaren emaitza dira. Egilearen esanetan, "denbora asko neraman abestiak idazten. Neurkasa hasi nintzen lan horretan, denborak aurrera eginda kanta piloa nuela konturatu nintzen. Hortxe, egindakoa alde batera utzi edo aurrera jarraitu beharra zegoela ikusi nuen". Aurrera egitea erabakita, orain bi urte jarri zuen abian Mikelek bere lana eza gutzera emateko prozesua. Horretan lagun izan ditu Koldo Uriarte pianoan eta Juanjo Unzilla teklatueta "taberna eta antzokietan emanaldiak egiten hasi ginen ofizioa ikas-teko. Oso prozesu polita izan da, bide gogorra da baina es-



kola ezin hobea ere bai". Bidean gainera taldea handitu egin zen, Asier Iarza baxu jolea eta Iker Iriarte bateria jolea batu baitzitzaizkien.

'Deklarazioa' osatzen duten musika eta letrak Mikelek berak egin ditu. Lanbide honetan hasi zenetik egindako lanak kaleratu nahi izan ditu lehendabiziko lanean. Hala ere kantautore hitza ez du oso gogoko eta ez du uste bere musika definitzeko balio duenik hitz horrek: "bi tradizio bereizten ditut musika klase honetan, bata anglosajoi eta bestea mundu latinoan erabiltzen dena. Gehiago identifikatzen naiz anglosajoiarekin, bertatik gertuago sentitzen naiz".

Diskoan 12 kanta daude, bakoitzak musika estilo bati eutsita, istorio ezberdinak kontatzen ditu. 'Deklarazioan' maitasuna da ardatza, 'Itzulan' kantuan berriz, eguneroko bizitzan presaka bizi beharra, itzulan aritzen ziren baseritarren patxararekin aurrez aurre jarri nahi izan du.

Diskoa Azkaraten dauden estudioetan grabatu dute. Lau egunean egin dute lan guztia, Mikelen hitzetan, "gogorra eta polita izan da". Lan berria Durangoko azokan egongo da salgai, eta handik bueltan hasiko dira promozio lanetan.

Laburrean

Etxegarate

Makinak hasi dira dagoeneko Etxegarate bikoizteko lanean. Oraingoz ez da espero trafikoan arazorik sortzea. Urtarriletik aurrera ordea, egunero lurra kentzeko leherketak izango direla jakinarazi du Diputazioak. Hori dela eta ia egunero gutxienez bost minutuz bidea itxi egingo dute.

Sanblasak

2000. urteko festak antolatze-ko bilerak hasi dira dagoeneko. Ostiralero izango dira 19:00etan Kultur etxean. Lehendabiziko bileran zehaztu zenez, otsailaren 2tik 6ra izango dira festak. Aurreko asteburuan krosa egingo da.

Xabier Urteaga

Eduardo eta Iparrari omenaldia

Ondoko ekitaldiak daude antolatua asteburu honetarako Eduardo eta Iparraren omenez.

● **Larunbata;** 16:30ean Mus Txapelketa azkarra Kimu elkartean. Izena emateko epea 16:00etan bukatuko da. 22:00etan herri kirol jaialdia Igarondo pilotalekuan. Olaberria eta Aginagaren arteko lehia: lasto proba, gurdi proba, txingak, aizkora, trontza, koskol biltzea eta zaku lasterketa. Ondoren sokatira: Olaberria Sakanako nesken aurka. Aginaga eta Orendaingo taldeek ere parte hartuko dute. Joseba Iparragirre trikitilaria bertan izango da.

● **Igandea;** 10:00etan Atxurbi mendira ibilaldia.

IBAI-ONDO

Altzariak neurritan
Mota guztietako aroztegi lanak
PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

Logela, egongela eta sukaldeko altzari
nahiz osagarrietan aukera paregabea

ERAKUSKETA ☎ 943 88 05 43
Antzizar Auzoa, z/g **BEASAIN**



PSIKOLOGI KLINIKOA



Helduen,
umeen, bikoteen
eta sexologi
tratamenduak

José Ramón Pato Prieto

Psikologian lizentziatua

Elkargokide zenbakia: E-2644

RPS: 420/95

JM Arana, 1 - 2. esk. esk. **BEASAIN**

AURRE ZITA

☎ 943 88 72 21

☎ 610 02 00 41

Auto EASO



Ibabe industrialdea, 13
LAZKAO ☎ 943 16 30 15
☎ 606 301 955

UDALAK SUSTATUTAKO ETXEBIZITZEN SALMENTA

INFORMAZIOA:


Lanegunetan:

☎ 943 16 21 92

Larunbatetan:

10:00 - 12:00

Altzagako Udaletxean



Antton Garcia del Molino presoaren kaleratzea eskatu dute senide eta medikuek



Hernia diskaleko gaixotasuna eta Meniere sindromea dauka Antton Garcia del Molino preso ordiziarak. Bere osasun egoera okerrera doa, behar bezalako mediku asistentziarik ez duelako. Gauzak honela, eta zigorraren 3/4a betea duela kontuan izanik, Antton libre uzteko eskatu zuten azaroaren 19an Ordizian Senideak elkarteak eta herriko anbulategiko hainbat langilek prentsaurrean.

18 urte daramazki kartzelan Garcia del Molinok. 12 urte Castellongo kartzelan egin ditu eta senideen arabera, oso baldintza gogorretan. Madrilgo Gobernuak 105 preso gerturatzeko hartutako erabakiaren ondorioz, Palentziara eramane zuten. Han ere behar bezalako mediku jarraipenik ez zioten eskaintzen, baina berriz ere Castellonera bidaliko zutela mehatxatuz, tratamendurik gabe gelditzea aukeratu zuen ordiziarak.

Epaileak Martutenera ekartzeko erabakia hartu bazuen ere, Basaurin dago Antton Garcia del Molino. Bakar-bakarrak omen dago.

Anttonen etxeratzea eskatzeko, Udalak eta herriko elkarte, sindikatu eta alderdi politikoek deituta, konzentrazioa egin zen azaroaren 20an Ordizian.

Postal eta idazlan lehiaketa

Eguberriak inguratzen ari diren honetan postal eta idazlan lehiaketa antolatu du aurtengo Goiztiri AEK-k. Deialdia herriko bi ikastetxetako ikasleei zuzendutakoa da. Postal lehiaketan Urdaneta-Oianguren eta Jakintzako 5., 6. eta DBH.1. mailako

ikasleek parte har dezakete. Gaia Eguberriak izango da denentzat eta lanak abenduaren 14an jasoko dira. Sariak: Lazkaoko Gerriko liburutandean materiala erosteko 5.000 pta.ko tikea lehenentzat eta 4.000 pta.ko tikea bigarrenentzat.

Idazlanen lehiaketan, aldiz, DBH.2-ko bi ikastetxetako ikasleek har dezakete parte. Hauek gai librean izango dute eta gutxienez bi orrialde eta gehienez lau lanak aurkez ditzakete. Lehenengoarentzat 12.000 pta.ko tikea zain izango da Lazkaoko Gerriko liburutandean materiala erosteko, bigarrenak 10.000 pta.ko tikea izango du eta hirugarrenak 8.000 pta.koa.

Lan guztiak ikusgai izango dira abenduaren 18tik 26ra bitartean Barrena Kultur Etxean.

Ardo sariak banatuak

VII. Ardoaren astea modu onez burutu zen joandako astean. Giro hotza nagusi zen arren jende dextente bildu zen, bai astean zehar Barre-

Fantasizako eta beldurrezko filmak

Azaroaren 27an, Herri Antzokian, gaueko 10etan hasita izango da fantasiazko eta beldurrezko filmak ikusteko aukera, 700 pezetan truke: 'The Stormriders' (Andrew Lau), 'El hombre elefante' (David Lynch) eta 'Angel of the night' (Shaky Gonzalez) luzemetraiak eta 'The Raven' (Tinieblas Gonzalez), 'Abuelitas' (Francisco Plaza) eta 'Viet-Nam' (Manuel Romo) laburmetraiak.

nan egindako dastaketa komentatueta eta baita asteburuan Enparantza Nagusian ireki ziren ardo stand-etan. Sariak banatzerako orduan urteko ardoei dagokienez Lantziegoko Azpillaga Urarte upategiko Viña el Pago ardoarentzat izan zen lehen saria eta Lasernako Señorío de las Viñas ardoarentzat. Kriantza ardoei dagokienez, berriz, hiru sari eman ziren. Lehena Samaniegoko Ostatu 96 ardoarentzat izan zen, bigarrena Navaridaseko Guzman Aldazabal 97 ardoarentzat eta hirugarrena Lasernako Señorío de las Viñas 95 ardoarentzat.

Asto kaleko festak

Umore onez joan ziren aurtengoan ere Elkano kaleko festak. Kanean obrak egiten ari diren arren jendea mugitu zen bai bertan eta ohiko asto karrera egin ez bazen ere hor izan ziren mus txapelketa, txaranga, afari, bazkari eta abarrak.

Aitor Calvillo



Jokatu berria da Bustuntza auzoko Argi Berri Elkartean bazkideen arteko XXII. mus txapelketa. Argazkian agertzen diren Jesus Mari Irastorzak eta Patxi Calvillok lortu zuten txapela. Finalean Manuel Zeberio eta Joseba Auzmendi izan zituzten aurrez-aurre. Bi bikote hauek izango dira datorren urteko Elkarteen Arteko Mus txapelketan Argi Berri ordezkatzeko dutenak.



Udal berria aukeratzeko hauteskundeak azaroaren 28an

Euskal Autonomia Erkidegoan ekainaren 13an egin ziren udal hauteskundeak baina Gaintzan zerrendarik aurkeztu ez zenez, azaroaren 28ra arte atzeratu zituzten alkatea eta zinegotziak aukeratzeko hauteskundeak.

Bost lagunekoko zerrenda bada oraingoan, Gaintzako Herriaren Alde talde independentekoa.

Gaintzako Herriaren Alde:

- Jose M. Matxain Artola
- Joakin Garmendia Zubeldia
- Santiago Garmendia Olano
- Jose Manuel Ibañez Ibañez
- Ignazio Javier Garmendia Arruabarrena.



XXI. mendeko Udala aukeratuko da azaroaren 28an.

Zerrenda irekia

Gaintza 200 biztanletik herria denez, zerrenda irekia izango da. Bost lagunekoko zerrendatik lau markatu behar dira. Izenik botatuena izango da alkate, nahiz eta zerrendakideak ados jarritz gero, besteren bat izendatze-

ko aukera badagoen.

Goizeko 8etan osatuko da hauteskunde mahaia. Goizeko 9etatik iluntzeko 8ak arte izango da botoa emateko aukera. Udaletxean bertan egongo da hautes mahaia.



Etxe erre eskean

Zegaman erre zen Asemendi baserriaren alde Zerainen etxe etxe egin zen bilketan 330.000 pezeta bildu ziren.

robika egiteko asmoa dago, honetarako azaroaren bukararako izena eman behar da Mandioa dendan.

Soinketa

Udaleko Ongizate batzordeak antolatuta, joan den asteaz geroztik herriko adinekoak, asteen bi egunetan eta Jokin Elkoro gidari dutela soinketa egiten dute. Baita ere Kultur batzordeak antolatuta, Ae-

Ingelesa

Kultur batzordeak antolatuta, ingeleseko ikastaroak antolatu nahi dira. Honetarako izena Mandioa dendan (943801505) edo udaletxean (943801724) eman dezakezue abenduaren 10a arte.

Bolari eta Tokalari eguna

Bolari eta Tokalari eguna aurtengoan Zerainen ospatuko da abenduaren 8an Liztormendi Elkartek antolatuta, Udalaren eta Bolari eta Tokalari Federazioaren laguntzarekin.

Egun honetarako prestatutako egitaraua hau da: **Goizeko 9etatik 10,30etara:** Bola eta toka txapelketa. **11etan:** Hildako bolarien alde meza. **14:00etan:** Bazkaria Otatza sagardotegian.

Aurtengoan 12 bolari eta tokalari 1 omenduko dituzte, 65 urtetik gorakoak denak. Omenduen artean bi zeraindar izango dira: Antonio Alustiza eta Martin Etxaluze bolariak.

Egutegia, ordutegia eta mailak antolatzeko bilera batera deituko zaie izena eman dutenei. Ikastaroak urtarrian hasiko lirateke.

Bideo emanaldia

Abenduak 10, 20:30ean, Kultur etxean, herriko haurrek egindako antzerkien emanaldia izango da.

Mari Flor Mendizabal



Nafarroa
Etorbidea, 9

☎ 943 88 94 82

BEASAIN

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoak: 943 88 57 50 - 943 88 57 54

Nafarroa Etorbidea, 25 - 2. **BEASAIN**

Txorizugarrien IV. lehiaketa

Goierriko Euskal Eskola, Maizpide eta Gerriko aurten ere antolatu dute Txorizugarrien lehiaketa. Bertan nahi duen edonork har dezake parte, bakarka nahiz taldeka. Baina, abenduaren 1a baino lehen eman beharko da izena Gerriko liburudendan. Txorizugarriak Kultur Etxera eramane beharko dira abenduaren 10ean, arratsaldeko 3etatik 8etara. Eta hilaren 20an jaso beharko dira ordu berean.

Txorimalo hauek egiteko edozein materiale erabil daiteke, baina lurrean tente eusteko bakoitzak ardatz bat izan beharko du. Funtsezkoa da txorizugarri bakoitzak euskaraz idatzitako esaldi bat eramatea. Baina gaia ez da askea izango, hau da, neguaren inguruko esaldi bat idatzi beharko da. Hala ere, ez du errimaduna zertan izan beharrik.

Abenduaren 17an izango da sari banaketa 18:30ean. Saria jasotzeko egilea edota berak izendatutako ordezkariaren bat bertan izatea derri gorrezkoa da, ze liburu sorta eta liburu azokan gastatzeko txkeez osatutako hainbat sari banatuko dira. Esaldi polit eta orijinalenak ere izango dute oparia.

Lehiaketa honetan aurkezten diren txorimalo guztiekin, erakusketa egingo da Udaletxeko Kultur Etxean abenduaren 14tik 19ra.

Baserritarren bilkura

Gaur arratsaldeko zortziretan baserritar guztientzat bilera informatibo bat eskainiko da Udaletxean. Bilera honetan, Mendi eta Baserri inguruan 2000. urterako Goimenen aurkeztu ditzaketen proiektuei buruzko informazioa emango da. Azalpen horiek emateko, Udaleko kideez gain Goimeneko teknikariak bertan izango dira.

Internet liburutegian

Astelehenetik aurrera Udal Liburutegian herritarren behar bat asetzeko aurrerapausu bat eman da, Internet zerbitzuaren eskaintza hain zuzen ere. Hala ere, hasieran behintzat ordenagailu bakarra jarri denez, izena ematea derrigorrezkoa izango da. Hau da, Internet erabili nahi dutenek egun bererako ordua



daia hori burutzeko aukera garbiak ematen dizkiete.

Beraien gaitasuna Montjuic Igoeran azpimarratu zuten azken aldiz. Euskadi ordezkatzuz joan ziren Usurbileko beste kide batekin. Emilio eta Ekainek pelotoi berebetean parte hartu zuten, nahiz eta hau ez izan normalean gertatzen dena. Bigarren eta bosgarren postuak lortu zituzten.



Markox Barandiaran irabazle

Pasa den ostiralean, Domarda jolas kultur elkartearen egin zen XX. Sagardo Txapelketan Markox Barandiaran atera zen garaile. Barkaiztegi sagardotegia izan zen lazkaotar honek ordezkatu zuena. Dena den, bigarrenari hiru puntuko aldea ateratzen zion bakarrik. Hemeretzi partaide aurkeztu ziren txapelketa honetan, hamalau sagardotegien izenean. Boteilako sagardoa dastatu bitartean afaldu ere egin zuten partehartzaile eta juntako kideek. Beraz, giro aparta sortu zen, argazkian antzean daitekeen moduan. **Argazkian:** Ezkerrean Martin Naldaiz (bigarrena), Agustin Insausti (Domardako lehendakaria), Txapelduna Markox Barandiaran, eta hirugarrena Jose Mari Etxeberria.

eskatu beharko dute. Ordu bete erabili ahal izango du pertsona berdinak zerbitzu hau eta gainera dohainik izango da.

Marrazketa ikastaroa

Azaroaren 17an 4. Marrazketa eta Pintura ikastaroari hasiera eman behar bazitzaion ere, astebete atzeratu da. Oraindik izena emateko badaukazue aukera.

Txirrindulari apartak

Lazkaon badira bai garaipenak biltzen jarraitzen duten bi txirrindulari; Emilio Sanchez eta Ekain Arruabarrena. Beraien ezintasun fisiko eta psikikoak kirola egiterako orduan ez direla oztopo behin eta berriro egiaztatu digute. Begirada Sidneyko paraolinpiadetan kokatua daukate jadanik. Estatu mailan izandako garaipenek bidaia hori burutzeko aukera garbiak ematen dizkiete.

Gipuzkoako jaien berrikusketa

Maizpidek Gipuzkoako jaietara hurbildu zituen etxekoandre eta Ikastolako haurrak azaroaren 5ean. 'Gipuzkoako Jaiak: udazkena eta abenduaren hasiera'. Abenduaren 15ean, ordea, gainontzeko herritar guztiek izango dute emanaldi honetara joateko aukera, 21:00etan. Javier Juanezen eskutik datorkigun jai egunen ibilaldi honetan, besteak beste, Zegamako San Martin azoka, Lazkaoko Astotxo festa, Santa Lutzi feria,.... deskribatzen dira.

XVIII. Moskorrak musa

Abenduaren 11n jokatu da aurtengo Moskorrak mus txapelketa azkarra. Urtero bezala lehen saria 120.000 pezetakoa izango da eta bigarrena 60.000 pezetakoa. Izen ematea egun berean Gerriko tabernan izango da.

Elordi Garcia



Eguraldi makurraren aurka jendearen berotasuna IV. Errezil lehiaketan

Joan zen igandean ospatu zen Gabiriako IV. errezil sagar lehiaketa eta baserriko produktuen azoka. Antolatzaleei kezkarik handiena larunbateko eguraldiak eta iganderako iragarpenak eragin zieten, baina, azkenean, eguraldia nahiko ongi portatu zela esan behar, ateri egon baitzen igande goiz osoan.

Prestakuntzak bezperan egin ziren eta zegoen eguraldia ikusirik frontoi itxian egitea erabaki zen; dena den, igandekoa ikusiz batek baino gehiagok esan zuten zergatik ez zen plazan egin, igandeko eguraldiak eman baitzuen horretarako aukera. Dena den, herritar bati entzun genion honako esaldi hau. "Egoaldi onekin jende natural gutxi etorriko dek gaur ona". Izan ere, errepedeak li-

bre egon arren, eguraldia ez baitzen oso atsegina.

Arrazoi hori dela eta beste urtetan adina jende bildu ez bazen ere, uste baino gehiagorri zen eta etorri zirenak erosteko asmotan gainera eta ondorioz, errezil sagarra behintzat beste urteetan adina saldu zutela adierazi zuten saltzaileek.

Errezil sagarren lehiaketako lehenengo saria Agerre-berri baserriko Maria Etxezarretak irabazi zuen; bigarrena, Urkiola baserriko Xabier Arratibelek eta hirugarrena Iru-bideko Gabriel Galdosek. Horretaz gain, omenalditxo bat ere egin zion Gabiriako herriak Izar Aundi baserriko Maria Isabel Zumalakarregiri. Unanue gozogintzaren oparia eta Udaren lore sorta jaso zituen.



Nekazaritza diputatua, irabazleak eta omendua sariekin.

Epaimahaiko lanetan Ze-raingo Otatza baserriko Joxe Antonio Iparragirre; Ostaturko Martin Irazustabarrena eta Azpeitiko Salvador Gorostola aritu ziren eta beraien esanetan nahiko lan izan zuten zeini eman erabakitzen, oso kalitate oneko sagarrak aurkeztu baitziren.

Sagardoa nola egiten den ikusteko aukera ere izan zen, goiz-goizetik aritu baitziren eginkizun horretan Noareko Jose Mari eta Zoazola Goiko Eusebio jendearen ikusmina asetzeko asmoz. Aurtengoan sagarra txikituta eraman bazuten ere, datorren urterako sagarra bertan txikitzeko asmoa ere azaldu zuten.

Urtero gauza berri bat sartzen denez egitarauan, dato-

rren urterako, sagarraren lehiaketaz gain, menbrilo lehiaketa ere antolatuko da eta bertaratzen direnek lehiaketako menbrilo hori dastatzeko aukera izango dute.

Urtero saskikada bat sagar, hamabost kilo inguru, zozketatu ohi da eta aurtengoan Mendaroko mutil gazte bati suertatu zitzaion.

Azkenik, aipagarria da Diputazioko Nekazaritza Saileko Jon Mikel Murua diputatu jauna ere hantxe izan zela goiz-goizetik eta antolatzaleek bereziki eskertu eta txalotu nahi diote, egin zuen eguraldia kontuan izanda, jorkaera edo portaera hori.

Gabino Murua



San Nikolas eskea abenduaren 6an

San Nikolas egunean, abenduaren 6an, Aitxuri herri-eskolako ikasle-irakasleek, bertiko abestiak kalez kale kantatuko dituzte. Bertako ikasleek erabaki dutenez, jasotako dirua Turkiara bidaliko da. Gotzainak Jon Ander Gomez eta Iñaki Labaka.

Kultur-kirol elkarteentzat diru-laguntzak

Udalak aurtengo milioi bat pezeta jarri du herriko kultur eta kirol elkarten artean banatzeko. Abenduaren erdira-

ko eskaerak aurkeztu behar dira Udaletxean. Diru-laguntza hauen eskaera egiteko baldintzak:

1.- Behar bezala betetako eta bukaeran atxikitzen den subentzio eskaera instantzia, deialdi hau osatzen duten oinarriak onartzeko konprometua barne hartuz, Udaletxe honetan eskura egongo delarik.

2.- Eusko Jaurlaritzako Elkarte eta Entitateetako Erregistroan inskribaturik daudeneko ziurtagiria.

3.- Identifikazio Fiskaleko Kodearen fotokopia.

4.- Dagokion Banku entitateak luzaturiko agiria, kontu Korrontea eskatzailearena dela ziurtatuko duelarik.

5.- Eskatutako subentzioaren xede den proiektuaren jardura programa edo definizioa.

6.- Gastuen eta sarreraren aurrekontua.

7.- Entitate bakoitzeko partaideen zerrenda.

Edurne Albizu

Iker Sukia: "Ez naiz damutzen bide hau hartu izanaz"

GOIERRITARRAren azken alean izan genuen Iker Sukiaren azken fitxaketaren berri. Hori aitzakiatzat harturik, eta herrian Espainiako azpitxapelduna den kirolari bat edukitzeak suposatzen duen ohoreaz jabeturik, Ikerrengana jo nuen galdera batzuk egiteko asmoz. Hala eta guztiz ere, eta elkarriketari bidea eman aurretik, Ikerri eskerrak eman nahi nizkioke egun batetik besterako eskaera honi horrelako prestutasunez erantzun izanagatik.

- Real Sociedad taldea utzi eta Jerezko talde batekin fitxatu duzula. Ez al dago Jerez Ataundik urruti xamar? Zergatik aldatu hori?

- Bai, Jerez urruti xamar dago, baina kirol mundua horrelakoa izaten da urte batean talde batean eta hurrengoan auskalo. Azken finean, hemen denok ekonomiari begiratzen diogu eta, nire kasuan ere horrela izan da. Jerez egindako eskaintza nahiko ona izan da eta Errealekoek ezin izan omen dute eskaintza horretara iritsi.

- Espainiako azpitxapelduna zaitugu. Hainbat marka hautsi dituzu. Aipatuko al zenizkiguke garrantzitsuenak?

- Kadeteetan Espainiako errekorra lortu nuen pista estalian. 5 kiloko pisuarekin 18.24 metro. Junior mailan, pista estalian, 7.260 kiloko bola 18.31 metrora botatzea lortu nuen, Espainiako errekorretik 3 zm.ra geldituz. Seniorretan, aire librean iaz lortu nuen markarik hoberena, 19.05 metro.

- Zer sentitzen da hain urruti irixtean?

- Poz haundia sentitzen da, baina hala ere oraindik asko dut ikasteko eta nire lanean gogor saiatu beharrean nago ahalik eta urrutien iritsi ahal izateko.

- Aldaketarik suposatu al du zure bizimoduan?


- Ez, ez du aldaketa haundirik suposatu. Nik lehen beza jarraituko dut eta entrenatzen ere lehengo entrenatzailarekin Tolosan entrenatzen jarraituko dut.

- Zenbat urte daramazkizu kirol honetan? Nolatan hasi zinen pisu jaurtiketan?

- Pisu jaurtiketan 8 urte daramazkit. Lehenengo urratsak, beste jende askok bezala, Ataungo Joxemiel Barandiaran eskolan eman nituen. Pako Urrestarazu genuen entrenatzaile lanetan eta berari esker nago lan honetan. Izan ere, niri betidanik futbola gustatu zait eta Pako izan zen konbentzitu ninduen atletismoan jarraitzeko. Berak neregana konfiantza guztia zuen aurrera aterako nintzela eta horrela Ordizia Kirol Elkartera eraman ninduen (oraingo Txindoki Kirol Elkartea) eta bertan urte bete egin ondoren, Errealak fitxatu ninduen eta bertan 6 urte egin ditut.

- Zenbatero entrenatzen duzu? Zenbat orduz?

- Astean 6 egunetan entrenatzen dut, astelehenetik larunbatera. Egunean 3ordu edo 3 ordu térdi.



- Dieta berezirik jarraitzen al duzu? Prestaketa berezirik?

- Dieta berezirik ez daukat eta prestaketa berezirik ere ez, besteekin konparatuz gero.

- Oso gustoko duzun zerbait utzi beharrik izan al duzu?

- Bere garaian futbola, baina orain ez naiz damutzen bide hau hartu izanaz.

- Zenbateko pisua botatzen duzu? Zer materialez dago egina?

- Guk botatzen dugun bolak 7.260 kilo pisatzen ditu eta altzairuz egina dago.

- Zer behar da pisu jaurtitzaile on bat izatera iristeko?

- Lehenengo entrenatzeko gogoia eta bigarren entrenatzeko garaian disfrutatzea egiten ari zaren lanarekin.

- Sidney-n ikusiko al zaitugu?

- Nik nahiko nuke, aurtengo helburuetariko bat hori da. Nire ustez ondo entrenatuz, lesiorik gabe eta teknika pixka bat hobetuz aukerak izango ditudala bertan egoteko.

- Joango bazina, zein izango litzateke zure helburua?

- Nire helburua ahalik eta maila hoberena ematea eta bertako giroaz gozatzea da.

- Zure karreraren noraino irixtea izango litzateke zure ametsa?

- Nere ametsa goraino iristea izango litzateke, baina konformatuko nintzateke mundial mailan aurrean ibiltzeaz eta, dominaren bat edo beste lortuz gero primeran.

Zorte on, Iker beraz, eta mila esker.

Agurtzane Bikuña

Hiru Auzoetako XX. Korrikaldiko emaitzak

72 korrikalarik hartu zuten parte. Tartean hiru emakumezko eta 13 herritar. Emaitzak:

1.: Jose Javier Cuadrado. Zaldibitarra. 58'28"

2.: Luis Miguel Garijo. Beasaindarra. 59'39"

3.: Asier Gutierrez. Barakaldoarra. 1h0'35"

1. neska: Elena Gomez. Altzarra. 1h 16'55"

2. neska: Naroa Arrieta. Donostiarra. 1h17'22"

3. neska: Osane Dorronsoro. Donostiarra. 1h29'01"

1. herritarra: Jexux Albisu. 1h10'15"

2. herritarra: Txomin Bikuña. 1h11'43"

1. beterano herritarra: Joxe Ramon Agirre. 1h13'18"

Helduena: Felix Uranga. Donostiarra. 1h30'01".

Antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete Hiru Auzoetako korrikaldia antolatzea posible egin duten guztiei.

Eguberri bezperatan

Datorren abenduaren 5ean 1995etik hona berriturik agertzen zaigun Aiestaran-Erreka auzoko festa ospatuko da. Egurdiko 12,30etan Elizkizuna izango da Santa Barbara aurrean. Ordu bete beranduago, Lazkao Etxen umeen jolasak eta Ainhua eta Idoia Agirre trikitilarien saioa izango da, bertan emango den auzo bazkariari bide emanaz. Bazkalondorenean, bertsolariak arituko dira jai giroa alaitzen eta mus eta partxis txapelketan parte hartuko dute auzotarrek. Festa umoretsu bukatzeko Agarreko bi ahizpen trikiti doinu alaiez gozatzeko aukera izango da berriz ere.

Bestalde, eta eguberri bezpera hau jai giroan murgilduz, Ordiziako "Urrup" antzerki taldearen eskutik "Auto" antzezlanak izango da herrian abenduaren 10ean, gaueko 10etan. Justu astebeate beranduago, abenduaren 17an, Imuntzo eta Belokiren "Loussianara noa" diska berriaren aurkezpena izango da gaueko 10,30etan, hau ere herriko antzokian.

Txokolate jana

Beti-Gazte elkarteak antolatutik, Santa Luzi egunez txokolate jana eskainiko da zaharren egoitzan. Abendu-ko hamairugarren egun hau, azken urteotan, ohiturazko giro gozoan bihurtu da herri-ko zaharrenentzat.

Osoko bilkura berezia

Udalbiltzaren sorkuntza eta helburuekiko atxikipen mozio politikoa dela eta, Euskal

Herritarrokeko udal taldeak pleno berezi baterako deia helarazten die herritarrei. Bilkura berezi hau bihar ospatuko da udaletxean, baina berri hau idazterakoan oraindik ezin izan dugu zehatz mehatz jakin deialdi honen nondik norakoak. Beraz, datorren alean izango duzue informazio gehiago.

Lanpostu deialdia

Joxepane Herri Ostatuan bi langile behar dira urte berri-rako. Langile bat eskatzen da barra eta jangela zerbitzatzeko eta bigarrena sukaldari lanetarako. Bete beharreko baldintzen artean, euskalduna izatea ezinbestekoa da eta zaldibitarra izatea ere kontuan hartuko da. Interesatuak Joxepanera deitu beharko dute abenduaren 9a baino lehen. Tlfnoa: 943 882047.

Tonbola

Zaldibiko jaietan eta Ardiki Egunean jarri zen Zaldibiako Irrati tonbolako Zb. Berezia 1 Mari Karmen Laguardiak eskuratu zuen. Zozketa bereziko Zb. Berezia 3 094-a irten zen, baina oraindik saritua azaldu ez denez, agertzeko epea hil honetan amaitzen dela jakinarazten da eta abenduaren 1etik aurrera 315 zb. duenak eskura ahal izango du 15 eguneko epean. Zb. berezia 2 oraindik salgai jartzeko dagoen poltsari dago-kionez, esan, nahiz eta txartel batzuk banatuak izan diren, zenbakia ateratzen denean argitaratuko dela.

*Saroi Jauregi
Iñaki Gurrutxaga*

Ehiza

txapelketa

Azaroaren 13an ospatu zen Errekabeltzeko inguruetan herriko ehiztarien 17. txapelketa. Gaztelu elkarteak antolatzen du txapelketa hau eta aurtengoan 17 ehiztarik parte hartu dute. Ehi-zatutako hegazti guztiak batu eta gero Eneko Gaz-



tañaga gazteak irabazi zuen 7 eper eta 3 faisán botata. Bigarren postuan Patxi Gorostiza sailkatu zen 5 eper eta 3 faisánek, eta hirugarren postua Mikel Iraetarentzat izan zen 3 eper eta 3 faisán ehizatuta. Sailkapeneko hiru lehenengoez eta iazko txapelduna izan zen Jon Anton Iraetak Goierri mailako txapelketan parte hartzeko txartela eskuratu dute. Antolatzaileen arabera, 50 eper eta 50 faisán askatu zituzten eta orotara 43 eper eta 23 faisán ehizatu ziren, beraz.



Kirol emaitzak

Hauetxek izan dira asteburu honetan herriko futbol zein pilota taldeek lortu dituzten emaitzak.

● Areto-futboleko Eskolarretako txapelketaren barnean:

Alebinak: neskak, Lardizabal-Urdaneta "B" (12-0)

Mutilak: Lardizabal-Jakintza "B" (7-0)

Infantilak: neskak, San Benito "A"-Lardizabal (4-3)

● Federatutako taldeen artean berriz:

Jubenil mutilak: Zaldibi-Iraurgi "B" (6-5)

Bigarren maila "A" mutilak: Antxeta-Zaldibia (6-4)

Emakume taldea: Hegoalde "B"-Zaldibia (5-3)

● Pilota kontuan, herriko pilotariak Kluben arteko txapelketan murgilduak dabilta. Bi partidu ziren jokatzeko baina eguraldi txarra dela medio kadete mailako partidua bakarrik burutu zen Zaldibiko bikotea osatzen zuen Xabat Garmendia eta Iosu Irazustabarrenak 22-10 galdu zuten Intxaurrendoko taldearen aurka. Ildo beretik, aipagarria da esatea Aratz Mendi-zabal eta Ibon Gurrutxagak osatzen duten bikotea Egiako txapelketan finalerdietara behintzat iritsi dela.

Igartzako Monumentu multzoa ezagutzera emateko Musikaldia abenduan

Aspaldidanik ari dira Igartzako Jauregia berritzeko lanetan. Uda honetan, bertako hormetan pilatzen zen hezetasunari irtenbidea eman diote, inguruko ur guztiak kanalizatu dituzte Jauregiaren inguruan pila ez daitezen eta hauek bukatu ondoren azkenik, Jauregi barneko lurra ere berritu egin dute. Lan hauek bukatu ondoren, asmoa orain, jendeari Igartzako Monumentu-multzoa ezagutzera ematea da. Eta honeta-

rako ekintza desberdinak prestatu dituzte. Martxan da esate baterako Igartzako Turismo Informaziorako Bulegoa, nahi duenak Igartzako Monumentu-multzoa bisitatu eta ezagutu dezan gidari baten laguntzarekin.

Bestalde, abenduaren 12tik aurrera, XVI. mendeko Igartzako Jauregiak bere ateak irekiko ditu, bertan ospatuko den musikaldi berezira. Eta hasi, Erdi Aroko musika-

konposizioekin hasiko da musikaldi hau, jauregia sortu zeneko garaia kontuan izanik. Ondoren, errenazimenduko eta barroko garaiko musika entzuteko aukera ere izango da.

Abenduaren 12an 18:30ean, Peñafloredako kapera, 'Florilegium Hispanicum' Erdi Aroko, Errenazimenduko eta Barroko goiztiarreko musika eskainiko du.

Abenduaren 19an, kapera beraren eskutik, Musika iberiarrak barrokoa izango da protagonista, 'Adiskideak Gortean eta Probintzian' obra aurkeztuaz.

Abenduaren 30ean azkenik, oraingoan Andra Maria Zeruratuaren Parrokian, 20:00ean, Donostiako Barroko taldeak eta Loinatz abesbatzak eskainiko duten kontzertuarekin emango zaio amaiera musikaldi honi.



Udazken kulturari errepasoa

● **"Odolkien errege"** Isabel Imaz beasaindarra dugu aurten. Azaroaren 13an jokatu zen XV. Odolki lehiaketara 40 odolkgile aurkeztu ziren guztira. Orain eta ohitura moduan, Loinazko San Martin egunean egiten den Kofradiaren bazkarirako odolkiak prestatu beharko ditu Isabel Imazek.

● **Errezil sagarraren eta Postuen Dotoretasun lehiaketan**, Lazkaoko Altune baserriko M^a Jesus Mugika Urteaga izan zen irabazle. Epaimahaiaren iritziz, baserriarren partaidetza zabala izan zen eta sagarrak aurkezten zituzten postuen kalitatea eta produktu ugartasuna ere goraipatu zituzten. Hau dela eta behar bada hurrengo urterako, barazkien lehiaketa ere antolatuko omen dute.

● **Pintura lehiaketa**. Arrano Kultur Elkartek antolatutako 8. Aire Zabaleko pintura lehiaketako irabazleak: helduetan Richard Perez; lehenengo herritarra Consuelo Ortega; infantil mailan Irati Otaegi eta jubeniletan Ane Dorronsoro.

● **Argazki rallya**. Argizpi Argazkizale Elkartek antolatutako 8. argazki rallyan, Carlos Mediavilla urretxuarrak eraman zuen lehen saria.

Euskara ikasketak egin dituztenei diru laguntzak

1998ko iraletik 1999ko abuztura bitartean, edozein mailako euskalduntze alfabetatze euskara ikasketak euskaltegiren batean egin dituzten 16 urtez goitiko ikasle beasaindar guztiek, diru laguntza eskaerak aurkezteko aukera izango dute datorren astearte bitarte Udaletxeko Harrera bulegoan. Laguntzak ondorengoak izango dira: %50a langabetu txartela ekartzen dutenentzat eta %33a gainerako guztientzat. Eskatzaileek, klase orduen %80ra joan izana frogatu beharko dute ibili den Euskaltegiko agiriaren bidez.



Iazko argazkian, hainbat beasaindar korrika Behobia-Donsotian.

Behobia-Donostian 78 beasaindar

Eguraldia lagun izan ez bazen ere, urtetik urtera korrikalari gehiago irteten da Behobia-Donostia lasterketa famatu honetan.

Beasaini dagokionean, euria eta hotzak ez zuen jendea kokildu eta 78 korrikalari izan ziren irteeran. Horietatik bi ziren emakumezkoak: Itziar Andueza eta Laida Urrutia.

Luis Miguel Garijo Gomez izan zen herriarren artean lehenengoa.

Nekane Altuna



Ongi-etorria Jokini

Gaur, azaroak 26, iluntzeko 7etan ongi etorria eskainiko zaio Jokin Aldanondo segurar beasaineratu preso ohiari. Plazan izango den ekitaldiaren ondoren kalejira egingo da Iparraldeko Kuxkuxtu txarangarekin. 21:30ean Elorri elkarteak inaugurazio afarian izango da Jokin.

Euskara ikastaroak

Aspaldiko partez euskara ikasten eta hobetzen hasi dira zenbait herritar herrian bertan. Pasa den azaroaren 15ean hasita, astean 3 egunetan Kultur etxean 2 talde ari dira: 14:30etik 16:30era alfabetatzen 8 lagun eta 17:00etatik 19:00etara euskalduntzen 5 lagun. 160 orduko ikastaroa AEK-koekin egingo dute San Joanak aldean bukatzeko.

Sukaldaritza ikastaroa

Udalak antolatuta, Joseba Etxeberria eta Xanet Garmendia herritarrek abenduan eta urtarilean herriko elkarte ezberdinetan sukaldaritza klaseak emango dituzte. Egunak, ordutegia... zehazteke daude.

Egur tailaketa, argazkigintza, pintura-eskultura ikastaroak ere eskainiko ditu

Gaur inauguratuko da Elorri berria

Zurbano kaleko 25ean dauden Kultur Elkartea, egoitza eta tabernaren inaugurazio ofiziala gaur izango da. Jokinen ongi etorriaren ondoren,

● 19:30ean Elorriko 15 kidek Ikurrin dantza egingo dute Elorri aurrean. Ondoren Ritxar Irazusta eta Arnaldo Otegiren hitzak izango dira. Hauek amaitzean herritar guztiei eskainitako



luntxa Elorri aurrean jarriko den karpan.

● Kuxkuxtu txarangarekin egingo den poteoaren ondoren afaria 21:30ean Elkarte berrian (txorixo patatak eta rondoa saltsan). Ondoren bertsoak eta kantuak.

● 24:00etan kalejira Kuxkuxtu txarangarekin.

Kultura batzordeak taldeak sortuz gero. Informazio gehiago Udaletxean.

Plan estrategikoa

Udaleko Garapen Ekonomikoko batzordeak, herriaren analisi ekonomikoa, soziala, kulturala eta patrimoniala aztertuta eta etorkizunean nola eta nola jo daitekeen jakiteko, Siadeko, Prospektik, LKS, Deustuko Unibertsitatea eta Ikonos etxe espezializatuen plana jaso du. Abenduko plenoan erabakiko da zeini eskaini.

Kirol eskolarra

● Lehenengo postua **Irungo krosean**. Eneko Agirrezaba-

lek infantiletan 2 km. egiteko 7'21" behar izan zituen. 85 partehartzaile izan ziren.

● Zapatu honetan etxean **Areto-futbola**. 11etan benjamin mixtoak: Laiotz - Jakintza F. 12:00etan banjamin mixtoak (3. maila): Laiotz - J.M. Barandiaran.

● **Mendi irteera**. Abenduaren 12an Lizarrusti-Alleku goizeko 8,30etan plazatik irtenda.

● **Krosa**. Ezkio-Itsason abenduaren 12an.

Futbola

Asteburuko emaitzak: Preferentea: Segura 1-1 Roteta. Jubenilak: suspendituta. In-

fantilak: Bergara 1-3 Aizkorri.

Asteburuan etxean: Kadeak: Aizkorri - Maricio. Zapatuan 11:00etan. Jubenilak: Segura - Zumaia. Zapatuan. 15:30ean.

Labur-labur

● **Alkatetzaren oharra:** 2000. urterako aurrekontuen zirriborroa abenduan aurkeztuko duela jakinarazten du.

● **HBren oharra:** 'Oinarri demokratikoak' bileraren jarraipena abenduaren 3an, 21:30ean, Elorri.

● **Odol emanaldia:** Abenduaren 11n, arratsaldeko 5etatik 7etara Osasun etxean.

● **Mus txapelketa:** Zopajale Elkarteak antolatuta, abenduaren 3an gaueko 10etan. Izen ematea bertan.

● **Elizako soledadean**, parretako hezetasuna saneatu ondoren, Joxe Mari Telleria ari da bertako pinturak lehengo modura uzten.

● **Iñaxio Imaz**. Erremonteko txapelketa nagusiaren finalaurrekoetarako sailkatu da Ezkurrearekin batera, 4 partidutatik 3 irabaziz.

● **San Nikolas** eta kultur ekitaldiei buruzko informazioa 23. orrialdean.

Joseba Telleria

San Andres azaroaren 28an



Santuaren eguna baino 2 egun lehenago ospatuko da San Andres ermittan. Nobedade modura, Kultura batzordeak ermittetako ospakizunetan antolatuko dituen musika emanaldia

diena dago. San Andres ermittan Donostiako 'Musikabi' akordeoi orkestraren omenaldia izango da 11:30ean. 12:30ean auzoan hildakoen aldeko meza. Ondoren herriko txistulariak eta udalaren laguntzaz eskainitako hamaiketakoa.

Abenduaren 6an San Nikolas eguna Seguran

San Nikolas jantzitako guztien bilkura egin nahi da

2000. urtearen atarian, San Nikolas eguna badatorrela eta ideia bitxi bat proposatu zen Kultura batzordean aurtengo ekitaldirako. XX. mendean San Nikolas jantzi direnen bilkura egitea. Kinta bakoitzeko zein mutiko jantzi zen jakitea ez da lan erraza, baina hortan ari da zenbait herritar eta dagoeneko, izen-abizenak eta urteak osatzen ari dira.

Gaur egun Donostian bizi den Justino Ormazabal Berasategi da momentuz San Nikolas izana den pertsonarik zaharrena, 1920koa.

Aurtengoa Jon Elorza

Azaroaren 22an egin zen herriko eskolan aurten San Nikolas izango den 6 urteko mutikoaren aukeraketa. Zozketa bidez Madalenako Jon Elorzari tokatu zitzaion gainerako neska-mutikoekin kantu eskera irtetzeko ohorea.

Kantu eskera

Haur bakoitzak bere poltsatxo eskuetan duela goizeko 10,30etan elkartuko dira eli-



Iazko San Nikolas, Eñaut Arretxe, kantu eskean lagundu zioten neska-mutiko batzuekin.

zan. San Nikolasen aldarean eskainiko zaien mezaren ondoren obixpoz jantziko den umeari jarraituz kantu eskera aterako dira. Jermanenetik hasita, Kale Nagusia, plaza, erdiko kalea, baztarkalea, Akelarre, Itturiberrialdea, Beheko Soso, Andraitz eta Gain Argi pasata, bikarioaren etxe aurrean amaituko dute ibilaldia. Ondoren komentuko mojei abestuko diete.

Oharra: Kaleko eskea 11 urte arteko haurrentzat dago

antolatua. Handiagoak eta nagusiak ez sartu eskean.

San Nikolas guztien bilkura

Urteroko kantu eskea bukatuta, 13:30 aldera plazan dira elkartzekoak. Guztiak batera argazkia aterata, oraindik Kultura batzordean zehaztu gabe dagoen ekitaldi xumeren bat burutuko da bertan.

Arratsalde ere festa

16:30ean: Buruhandi, erraldoi eta txistulariak aterako di-

ra. 17:30ean: Txokolate jana plazan. Ondoren, talo ikastaroa neska-mutikoentzat plazan. Segurako talogileekin taloak egin eta erretzen ikasteko aukera.

Turismo bulegoa

Abenduaren 6, 7 eta 8an 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara irekita egongo da turismo bulegoa Kultur etxean.

Diapositibak-erakusketak

Udaleko Kultura batzordeak Gabon ingururako antolatu dituen aktibitateen artean, Javier De Juanesen 'Udazkena eta neguaren hasiera' diapositiba emanaldia eskainiko da, bihar azaroak 27, 18:30ean Kultur etxean.

Abenduaren 1etik 15era 'Mundua zure ikuspegitik' argazki erakusketa ikusgai Kultur etxean.

Abenduaren 1etik 31ra, Martxeliño Elorzaren zuhaitz eta zuhaixken erakusketa Jaxinto Antxelmonean.

Joseba Telleria



MILURTE BUKAERA OSPATU NAHIAN:

- Kultur eta turismo ekintzak
- Ohitura zaharrak
- Erakusketak
- Txapelketak
- Diapositiba emanaldiak
- Musika



SEGURAKO UDALA

*Zatoz,
gonbidatuta zaude!*

Edozein argibidetarako:
943 801 006

Iñaki Maiora: "Ormaiztegin betidan alkate nagoela galtzeak"

Ormaiztegiko alkatea da Iñaki Maiora, baina aurretik ere ondo ezaguna zen 16-17 urterekin hasi eta 31 urte arte ziklo-kroseko goi mailan ibili baitzen. Jubeniletan hasi eta denboraldi batean 8 lasterketetatik 7 irabazi zituen. Hortik aurrera bere palmaresa bukatu ezina da: Ormaiztegin 5 garaipen, Estatuko txapelketan 5, Euskadikoan 4, Aretxabaletako proba garrantzitsua irabazi duen estatuko bakarra da, munduko txapelketan 13 aldiz parte hartua... Baina, orain, herriko alkate denean, Ormaiztegiko San Andres probarik ez da egiten. Ziklo-krosak bizi duen momentu txarraren ispilu.

- Zenbat urtean egin zen Ormaiztegiko San Andres proba?

- 30 bat urtean egin zen San Andres proba, garrantzi handiko proba izan zen. Ormaiztegiko festak ziklo-krosari lotuta zeuden. Orduan zaletu asko mugitzen zen ziklo-kros probak ikustera. Parte hartzaile asko Goierri aldekoak izaten ziren eta horrek nola-baiteko kirol mailako 'pike' a sortzen zuen. Gipuzkoan eta batez ere Goierri inguruan zuen indarra ziklo-krosak, Iurrebaso, Izagirre, Jokin Mujika eta ni geuden, gero Bijandi eta kataluniarren bat etortzen ziren eta giro handia sortzen zen. Herrian Joxe Ramon Izagirre eta ni maila gorenean egoteak zaletasun handia sortzen zuen. Utzi ondoren antolatzaile

bezala jarraitu genuen 1997. urterarte.

- Zergatik utzi zenioten proba antolatzeari?

- Betidanik ezagutu dugun proba hori, gainera alkate nagoela galtzeak pena handia ematen du. Neurtu beharra dago ematen duzun ikuskizuna, eskaintzen duzun giroa, antolatzeak daukan kostua, lana eta jendearen erantzuna. Azken urteetan asko jaitsi da, lana eta kostua, berriz, berdinak izaten dira. Gainera

Orain ziklo-kros herrikoia

Iaz larunbat gauean talde bat hasi zen Ormaiztegin ziklo-krosik ez izatea pena zela esanez eta igandeko lagunarteko proba antolatu zuten. Izagirrek zirkuitua prestatu zien eta 12 bat lagunek parte hartu zuten festa giroan. Aurten berdina egingo dute, programan sartuta. "Horrela egon den ohiturari piska bat eutsi egiten zaio. Gu ziklo-krosaren alde dena laguntzeko prest gaude, lasterketa herrikoia ere giroa jartzen du eta", dio Maiorak.



iaz guk beti antolatu izan dugun egun berean Bizkaian beste bat antolatu zuten. Orduan, lehen gutxi bagara eta gainera egun berean bi antolatzen baditugu, ez dago zer eginik. Ziklo-krosa ez gehiago nahastu eta zatitzeagatik uztea erabaki genuen. Erabaki gogorra eta tristeia izan zen Joxe Ramon Izagirrerentzat eta niretzat, urte askoan ibili

baikara elkarrekin, lasterketetan, munduko txapelketetan eta herriko proba antolatzen.

- Ziklo-krosaren behar akada ez da, ordea, hemengo arazoa bakarrik.

- Bai Euskadi mailan eta baita nazio artean ere asko ari

da jaisten ziklo-krosa. Oraindik harremana dut Europa mailako zenbait lasterkarirekin, eta adinean aurrera doazen izen handiko zenbaitek oraindik puntan jarraitzen dute, baina atzetik ez da indarrarekin gazterik azaltzen.

- Zeintzuk izan litezke arrazoiak?

- Giroa aldatu egiten da. Belaunaldi berriak ez dira gu bezalakoak. Orain gehiago jotzen da taldeko kiroletara. Ziklo-krosa bakardade handiko kirola da, entrenamenduak neguan egin behar dira, bakarrik, mendian eta eguraldi txarrarekin. Ez da ziklo-krosa lagundu ez delako, hori ere izan arren, jendearen pentsatzeko modua aldatu delako baizik.

EKAITZ

TABERNAK jai
zoriontsuak opa dizkizue

943 88 27 71 ORMAIZTEGI

AIMOSPORT
COMPETICION

Lehiaketetako esperientzia dugu alde

Zumarralde 8 943 88 28 15 ORMAIZTEGI

Zure kotxeko
seguritatea hobetu nahi
baduzu, suspensio,
direkzio eta frenuetan...

Bisita gaitzazu!

anik ezagutu dugun ziklo-kros proba k pena handia ematen du"

- Zer egin behar da ziklo-krosa berrindartzeko?

- Oinarritik hasi eta planteamentu orokor bat egin behar ko litzateke. Orain errepidean dabilen txirrindulariak kontuan hartu eta horiekin lanean hasi. Txirrinduan ez dabilen kirolariarekin alferrik da, oinarri hori beharrezkoa da. Horretarako beraien zuzendariekin hitz egin behar da eta haiek ez dira horren aldekoak izaten. Horrelako saioak lehen ere egin ziren baina ez zen ezer atera. Ardura hori federazioak harrru beharko luke, baina ez da batere erraza.

Zirkuituak ere bigundu egin behar dira. Gu ibiltzen ginen zirkuituak ez dago gaurko gazteei jartzerik. Aurka jarriko ziren lehenak gazteen gurasoak izango lirateke. Hortik hasi beharko litzateke baina zaila da.

- Mendiko bizikletak eraginik izan al du?

- Kirol ezberdinak dira. Zi-

klo-kros proba ordubeteko da eta bestea iraupen gehiagokoa da. Lehen mendian ibili nahi zuenak ziklo-krosa beste irtenbiderik ez zuen. Ni hasi nintzenean ez nuen aukera hori izan eta ziklo-krosa hartu nuen. Gaur egun gazteak ziklo-krosa nola dagoen ikusita mendiko bizikletari heltzen dio.

- Errepideko txirrindularitza indartsu dago, baina dopina dela eta nahikoa ari da nahasten.

- Orain modan dago dopina. Baina nik ez daukat inongo kezkarik, goi-goi mailako kirola osasunarentzat txarra dela esateko. Interes ekonomiko eta publizitario handiak daude. Orduan, denak beraien maila nondik igoko duten ari dira. Horrek debekatutako produktuen bila eramaten ditu eta laborategiak medikuen kontrolen aurretik doaz. Orain, egiten ari den lana egin beharra dago, atzetik datozen gazteei kirola garbia izan behar dela erakusteko.

Kirol gogorra

Kirol gogorra eta arriskutsua da ziklo-krosa. Beti neguan entrenatu behar, gauez, hotza, euria... "Neguan lanetik edo eskolatik atera, linterna hartu eta gauez entrenatu beharra izaten genuen. Ez zegoen eguraldiari begira egotarik, egunero zegoen entrenatu beharra, hartu bizikleta eta egunean tokatzen zena egiten genuen. Lokatzez josita bukatzen genuen, askotan, berriz, bizikleta txikituta".



Ibilbideak egiteko garaian zenbat eta aldapa handiago jarri ikuslea gustorago egoten zen. Erori, gorpila okertu eta bizikleta bizkarrean hartu eta jarraitzen bazuten, orduantxe ikusleak gustora. "Gaurko gazteak ez daude horretarako".

Maiorak dionez, kosto ikaragarria du ziklo-krosak: "lehenengo txandarekin zirkuituan bira batzuk ematen dituzu, dena lokaztu, eta irteeran txukun egoteko txirrindua garbitu eta jantziak aldatu behar dituzu. Txirrindu batekin ez da ezer egiten, 2 edo 3 behar dira. Goi mailakoek 3 erabiltzen dituzte, horiek kontroletan edukitzeko laguntzaileak behar dira. Erropa asko behar da, txirrindu asko mantendu behar dira eta hori gastu handia da. Eta ekonomikoki ez zen konpentsatzen. Profesional lizentzi izan arren nik beti lan egin dut".

Z·M

Gipuzkoako Foru Aldundia
ZUMALAKARREGI • MUSEOA

Iriarte-Erdikoa Baserria
Tel. 943 88 99 00
Faxa 943 88 01 38
ORMAIZTEGI

ARANA TABERNA_k

Jai zoriontsuak opa dizkizue!

© 943 16 02 05 ORMAIZTEGI

ARANTXA taberna

Pintxo eta ogitartekoak

San Andres, 13

© 943 88 28 22 ORMAIZTEGI



LINEA-MH

LANCIA ZERBITZU OFIZIALA

San Andres jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

☎ 943 88 10 61

ORMAIZTEGI

ZINEA

GOIENIZ:

Abenduak 2, 'Los cazadores' laburmetraia eta 'Los idiotas', 21:00etan, Usurbe Antzokian.

BEASAIN:

'Novia a la fuga'.
Ostirala 26: 22:15
Larunbata 27: 22:15
Igandea 28: 16:45 - 19:30 - 22:15
Astelehena 29: 19:30 - 22:15.

ORDIZIA:

'Terapia peligrosa'.
Ostirala 26: 22:15
Igandea 28: 19:30, 22:15
Astelehena 29: 19:30

'Pequeño gran cazador'.
Igandea 28: 16:45.

'Fantasia eta beldurrezko zikloa'.
Larunbata 27: 22:00etan hasi eta etengabe goizeko 5:00ak alderarte. Ikus 15. orria.

'Los idiotas'

Lars Von Trier
(Danimarka, 1998)

Ergelak taldeko gazteek gauza bakar bat hartzen dute aintzat: ergelkeria. Etxe batean sartuta, denok elkarrekin hain maitea duten zaletasuna praktikatzen dute, etengabe, babokeriaren dohainak sakon ezagutu nahian. Azken batean, gizarte zentzugabe honi aurre egitea litzateke helburua (atzeratuarena eginez ederki pasatzeaz gain); "ohitura zuzenen" aurkako iraultza, artaburuen matxinada... edota adimen koefiziente baxuko terrorismoa, agian?. Karen adar jole komando honekin topatuko da, hobe esan. Lehen haserrea, zentzuzkoa noski, gaingitu ondoren, ezarian-ezarian jokuan murgilduko da, ia konturatu gabe.

musika

BEASAIN:

Abenduak 12, Peñafloordako Kaperaren kontzertua, Igartzako Jauregian, 18:30ean.

ORMAIZTEGI:

Azaroak 27, 23:00etan: 'El corazon del sapo' eta 'LIF' taldeen kontzertua Itxune ondoko plazan.

ikusentzunekoak

BEASAIN:

Abenduak 14, Juanito Oiartzabalen diapositiba emanaldia Usurbe Antzokian, 19:30ean.

dantzak

ORMAIZTEGI:

Azaroak 14, Dantzari Txiki eguneko jailadia, 17:00etan.

Aisialdiko begirale eta zuzendari ikastaroa Lazkaon

Eziko udalekuek antolatuta, aisialdiko begirale eta zuzendari ikastaroa izango da Lazkaon, azaroaren 29an hasita. Izena emateko eta informazio gehiagorako telefonoa: 943-383880.

antzerkia

ORMAIZTEGI:

Azaroak 29, 18:00etan: Gasteizko Panta Rhei antzerki taldearen 'Txintxilipurdi erregea', Zubipe kiroldegian.

ZALDIBIA:

Abenduak 10, Ordiziako Urrup antzerki taldearen 'Autoa' antzezlan, Antzokian, 22:00etan.

erakusketak

LAZKAO:

Azaroan, 'Euskal pilota jokua', Kultur Etxean.

JOSUNE & KLAUDE
ileapaindegia & edergintza

Edergintza eta ileapaindegia
tratamendu guztiak

Iturtxo, 5 ☎ 943 16 22 56 **ORDIZIA**



Legazpi kalea. 3

ORDIZIA

- Pintxo hotz eta beroak
- Ogiartekoak

Autowag, s.a.



☎ 943 888 254 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN



AGENTZIA

LAZKAO GARAJEA

Senpere Industrialdea
☎ 943 882442 - 943 888901
Faxa: 943 888901
LAZKAO

Euskal Herrian Euskaraz taldearen 20. urteurreneko ospakizunak Ordizian

Ordiziako San Bartolome auzoan, Eroski atzealdean, jarriko duten karpan ospatuko dira asteburuan Euskal Herrian Euskaraz taldearen 20. urteurreneko ospakizunak, Goierri dagokionean. Egitaraua:

Azaroak 26, Euskaltzaleen afaria, 21:30ean, Goierriko trikitilari eta bertsolariek alaitua. Txartelak 1.500 pezetan.

Azaroak 27, Naftena, Izurri Berria, Berri Txarrak, DJ Aritz Sound Sistem taldeen kontzertua. Sarrerak: 500 pezetan.

Azaroak 28, 17:00etan, Kiki, Koko, Moko eta Flax pailazopak. 18:30ean, Ordiziako Jakintza, Beasaingo Ostadar eta Aurtzaka eta Zaldibiako Iztueta dantza taldeak. Sarrera 300 pezeta.

BEASAIN:

Azaroaren 26ra bitartean, J. L. Longaronen pintura erakusketa, Aterpe tabernan.

Azaroaren 28ra arte, Euskal Herriko zuhaitz eta zuhaixken herbarioa erakusketa, Usurbe Antzokian.

Abenduaren 3tik 12ra, Agustin Vaqueroren pintura erakusketa, Usurbe Antzokian.

Abenduaren 17ra arte, Iñaki Epelderen pintura erakusketa, Aterpe tabernan.

ORDIZIA:

Abenduaren 19ra arte, Christine Etcheversen pintura erakusketa, Barrenan.

mendi-irteerak

Beasaingo mendizaleak:

Azaroak 14, Ioar-Kodes.

Azaroak 21, Gorbeia.

Ordiziako mendizaleak:

Azaroak 28, Finalistaren eguna.

Txotxongilo jaialdiak

Tolosako Txotxongilo jaialdiaren barruan, Ordizian eta Beasainen ere izango txotxongiloez gozatzeko aukera.

Ordizian:

Azaroak 30, Andaluziako Teatro Las Maravillas taldearen 'El Patito feo', 11:00etan eta 18:00etan, Herri Antzokian.

Abenduak 1, 11:00etan, Brasilgo Circo Teatro Musical Furrunfunfun taldearen 'El mono Simao y otras historias', Herri Antzokian. **18:00etan**, Bulgariako Teatro de Titeres Targovishteren 'Blancanieves y los siete enanitos', Herri Antzokian.

Beasainen:

Abenduak 1, Errusiako Tver taldearen 'Hotz aita' txotxongilo emanaldia Usurbe Antzokian, 11:00etan 15:00etan.

VIII. Aterpe pintura lehiaketa

Beasaingo Aterpe tabernak antolaturiko VIII. pintura lehiaketa martxan da. Abenduaren 9an bukatzen da lanak aurkezteko epea. (Ezkiaga etorbidea, 3). Teknika eta gaia librea da. Artista bakoitzak lan bakarra aurkez dezake. Artelanaren neurrik handienak 1m x 1m izango du. Lehenengo saria, Aterpe tabernaren brontzez egindako eskultura izango da. Aukeratutako lanekin erakusketak egingo dira 2000 urtean zehar. Sari-banaketa abenduaren 18an egingo da.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Atorrasagasti
(Bustuntza -Ordizia). 943 88 29 34.

Azaroak 27-28: Atorrasagasti
(Bustuntza -Ordizia). 943 88 29 34.

Abenduak 4-5: Urbizu
(Kale Nagusia, 10 - Beasain) 943 88 02 32.

Abenduak 11-12: Jauregi
(Santa Maria, 2 - Ordizia) 943 16 09 49.

EROSKI KAFETEGIA

gosari - merienda
eguneroko menua

☎ 943 88 27 93

ORDIZIA

LEIAR KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA:

Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:

Salbatore Industrialdea ☎ 943 88 60 70

BEASAIN

IKASTEK AKADEMIA

AKADEMIA INTEGRALA

☎ 943 16 01 20

Joan Iturrilalde, 5

BEASAIN

UNIBERTSITATE MAILA:

Orain larunbatetan ere bai

- ✓ EHU, Oñati, Arrasate...
- ✓ Enpresaritza, Ingeniaritza
- ✓ Arkitektura
- ✓ Kimika, farmazia...

EGUBERRIETAN IKASTARO TRINKOA:

Abenduaren 20tik urtarrilaren 7ra

- ✓ Unibertsitate maila
- ✓ Ziklo formatiboa
- ✓ Batxilergoa
- ✓ Ordutegi zabalak

LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZA:

Hizkuntza eta matematika indartzeko

- ✓ Ortografia
- ✓ Irakurketaren ulermena
- ✓ Idatzizko espresioa
- ✓ Kalikulua eta buruketak

Hezkuntzako profesionalak
gogorritzen zerbizuan

Goierri-
ritan

AMEB



Erretegi bezala irekita

- * Eguneroko menuak
- * Asteburuko menu bereziak
- * Karta zerbitzua
- * Sagardotegiko menua
- * SAGARDOA TXOTXETIK
- * Plater konbinatuak

Zubierreka,9 ☎ 943 16 25 23 LAZKAO

Etxebizitzak

saldu

➡ Etxebizitza salgai Ikaztegieta. 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, terraza eta berogailua. 943652692.

➡ Etxebizitza salgai Beasainen, erdigunean. Berritua eta mobletzatua. 2 logela, egongela, bainua eta sukaldea. 40 m²ko lur sailarekin. 943888441.

➡ Pisua salgai Beasainen. Dena kanpo aldera, oso eguzkitsua. Ganbara ere badauka. 943888318. Deitu 13:30etik 16:00etara eta 20:30etik aurrera.

➡ Etxebizitza salgai Lazkaon, 3 logela, sukalde-egongela, 2 terraza, ganbara eta bainuarekin. 943161357.

Garageak

errentan

➡ Garagea alokatzen da. 943885698.

Animaliak

saldu

➡ Behor gaztea salgai. Ono hezia. 850 kilokoa. 943187459.

➡ Euskal artzai txakurkumeak salgai. 943801467 - 617213340. Txema Lardizabal.

➡ Seter ingeles txakurkumeak salgai. Desparasituak eta txertatuak. Pedegree onekoak. 943216684 - 670873227.

➡ Cocker hispaniel ingelese eskaintzen da arraza hobetzeko, pedigree onekoa. 943886164.

➡ Euskal ponnyak salgai. 943160919.

➡ 2 txakurkume, 'Blanco del Pirineo' arrazakoak, salgai. 943180484. Pili.

Ibilgailuak

saldu

➡ Seat Malaga, 1.500 salgai. SS-Z. 125.000 pezeta. Egoera onean. Gaez deitu. 943160214.

➡ Opel Corsa GSI-a salgai, 92. urtekoa (beltza). Egoera onean, prezio eztabaidagarria. 943881802.

➡ Kroseko KTM motorra salgai. 250 zm³ 96koa. 450.000. 629482749. Xabier.

➡ Kroseko motorra salgai: Husqvarna CR 250. 96. urtekoa. 943800487. Ibon.

➡ Kawasaki GPZ 400 motorra salgai. Egoera onean. 943731872 - 943731282.

➡ Opel Tigra salgai. Horia. Extrak. 40.000 km. 96koa. 943886709. Gaez deitu.

➡ Trialeko motorra salgai. Gas-gas 350. 95. urtekoa. 943 801418. Urtzi.

➡ Volkswagen Golf GTI 16 V, salgai. Extrekin. SS-AD. Asier. 943800384. Gaez deitu.

Bestelakoak

saldu

➡ Gasoleozko kaldera salgai, berogailu eta ur beroarentzat. Prezio onean. 943180264.

➡ Kawai markako pianoa salgai, egoera onean. 943884303.

➡ Sutarako egurra salgai. 943723504. Gauetan deitu.

➡ Egurra txikituta saltzen da, sukaldearako. Paga, haritza edo pinua. Etxetara eramaten da. 843882695 (bulego orduetan deitu).

➡ Hyundai autoentzat bali duten 16"-ko llantak salgai. Oso merke. 943882907. Gaez deitu. Ibon.

➡ Pentium 100 ordenagailua salgai. Interneteko akzesorio guztiekin. 943885445. Gaez deitu.

➡ Esne tankea salgai: Manus CRFM. 250 litrokoa.

Oso egoera onean. Artzaintzat egokia. 94680900 (mezua utzi). Iñaki.

➡ Eskusoinua salgai. Pianoduna, 80 bajurekin. 943273433. Mikel.

➡ Pigini akordeoi botoiduna (ia berria) salgai. 943465724.

Denetarik

➡ Gabirian asto-festa herriko bat antolatzeke astoak behar dira. Laguntzeko prest daudenek deitu 943887186 telefonora.

Lana

eskaintza

➡ Zaldibiako Joxepane herri ostatuan bi langile behar dira: bat tabernan eta jantokian zerbitzari lana egiteko eta bestea sukaldean aritzeko. Ezinbestekoa da euskalduna izatea. Zaldibitarra izatea kontuan hartuko dute. Abenduaren 9rako eman behar da izena. 943882047.

Agurrak



zorionak

➡ Urrezko ezteiak. Zegamako Amiñaurdi baserriko Bernardo Berasategi eta Manuela Ormazabal azaroaren 24an ezkondu zirela 50 urte bete direla eta, Zorionak!

Maria Isabel Zumalakarregi

69 urteko gabiriarra

"Festa izaten zen guretzat perira joatea"



Gabiriako Izar Aundi baserriko Maria Isabel Zumalakarregi oso gazte zela hasi zen astoa lagun zuela azoketara joaten. Lehenengo amarekin, eta 12ren bat urte zituenean, bakarrik. Larunbatetan Oñatira, ostiraletan Legazpira, asteazkenetan Ordiziara eta igandetan Zumarragara joaten ziren garai batean. Gaur egun, leku gutxiagotara joaten da.

Ohitura handia zegoen Gabiriatik Oñatiko perira joateko. "Nire amona zena ere, 180 urte edukiko zituen gaur egun, joaten zen". Oñatira joateko, goizeko 6etan abiatzen ziren, 9etarako iristeko. Astoarekin joaten ziren Oñatira. Joaterakoan oinez, astoa sagarrez kargatua joaten zelako, eta itzulera asto gainean. "Asteazkenetan astoak ez zuten arrantzarik egingo. Baina ostiral goizean bai. Legazpira eta Oñatira astoarekin joaten ginen eta egun

bakoitzean bazekien astoak zein bide hartu behar zuten. Astoa ez zen konfundituko, zuzen joaten zen", dio Maria Isabelek.

Txokolatea trukean

Festa izaten zen perira joatea. Gabiria, Zerain eta Mutiloakoak joaten ziren Oñatira, 20 bat lagun. Eguraldi ona edo txarra berdin. Zenbat eta lagun gutxiago joan, orduan eta peri hobea. Oñatira sagarrak bakarrik eramaten zituzten. Legazpira eta Ordiziara, arrautzak eta barazkiak ere bai. "Sagarra sobratzen bazitzaigun, aguazil ezagun bati uzten genion kajatxo batean, hurrengo astean saltzeko. Oñatin gehiena estimatzen zuten sagarra mokotxo edo kamuxa zen. Errezil sagarra Ordizian estimatzen zen gehiago", esan digu gabiriarrak.

Oñatitik bueltan, txokolatea ekartzen zuten eta ahizpa txikiagoak zain izaten zituen Maria Isabelek.

Sagarretan aditua

Gabiriarra sagar artean hazitakoa da. Gaur egun errezil sagarrekin makina bat sari irabazten du. 200 bat sagarrondo dituzte etxean, gehiena errezil sagarra. Gaur egun errezil sagarrak estimu handia badauka ere, Maria Isabelek beste hainbat klase ere punta-puntan jartzen ditu. Erreta jateko, errezil sagarra du gogokoen; baina konpotarako, mokotxa.

Garai batean urte guztian izaten zuten sagarra, San Juan sagarrarekin hasita. San Juan sagarra, San Inazio sagarra, Andra Mari sagarra, zerainsagarra, urtebisagarra, kanpandoja, errezilla, txorisagarra eta mokotxo. "Urte guztiko postrea sagarra izaten zen. Menbrilua eginda, konpotan edo, erreta".

Maria Isabelek gogoan du bere jaiotxean sagarrak nola kontserbatzen ziren. "Kutxan, azaoarekin, lasto sortatxoarekin, kontserbatzen zuten. Lekuz aldatzen joaten zen lastoa. Eta ikututakoren bat bazen, kendu egiten zituen".

Arbasoen jakinduria goraiatzeko du Maria Isabelek. "Errezil sagar zuhaitzak bakarrik ez zituzten sagastietan edukitzen, beste sagar klase ezberdinekin nahastuta baizik. Horrela erleek polonizatu egiten baitituzte".

Sagarrak mimo handia behar omen du. "Errezil sagarra aldatuta bakarrik ez dago ezer, kaso egin behar zaio. Laiatu egiten genituen lurrak, eta gero ximaurtu. Kimatu, podatu ere bai. Sagarrari eman egin behar zaio, mimatu egin behar da. Sagarrari ez badiozu ematen, sagarrak ere ez du ematen", argitu du. Bildu ere, poliki bildu behar dira.

GESTORIA Biok

ASEGUROAK

- ✱ Aholkularitza laborala eta fiskala
- ✱ Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak

☎ 943 88 44 00 - 943 88 12 58

Goierrri, 12

ORDIZIA



KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN

San Inazio, 5 ☎ 943 88 35 81
BEASAIN

GUREA

JANARIAK



GAZTAK
BABARRUNAK
ARRAUTZAK

☎ 943 80 17 58

☎ 619 40 95 66

Añber etxea
MUTILOA



Ormaiztegiarrak Lierniko festan

1930 ingurukoa da argazkia. Liernin Ormaiztegiakoek festa egiten zutenekoa. Bildotsa besoetan hartuta, soinujolea ere bertan zelarik.

Goiko ilaran: Iurrita, Joxe Gaztañaga, Marcelino Mendizabal, Alejandro Irizar, Marcelino Mujika, Zabala, Soinujolea 'Txiki', Juanito Iturbe, Tomas Mujika eta Anjel Murua.

Beheko ilaran: Jaxinto Aldai, Carlos Garcia, Migel, Juan Mari Intxausti, Jose Antonio Antia, Jose Angel Zufiaurre eta Joxeba Ezkurdia.

UNTXUNDEI

garajea

OSINALDE

karrozategia

☎ 943 88 28 21

☎ 943 16 07 06

ORMAIZTEGI

ORMAIZTEGIKO JAIK 1999

Alkatearen agurra

Gaingan ditugun San Andres jai hauetan adin orotako herritar guztioi eta kanpotik etorriko zareten guztiei prestatu zaigun festa ekintzetan parte hartzeko nire gonbitea luzatzen dizuet.

Bestalde egun hauetan gure artean egoterik ezin izango dutenek izan bezate gure oroimena.

Festak ondo pasa!!!



ORMAIZTEGIKO
UDALA



ITSASO

Jai zoriontsuak denoi!
apaindegia

San Andres, 31 ☎ 943 88 06 24
ORMAIZTEGI

ILEAPAINDEGIA

- ✖ Azken teknika eta estiloak
- ✖ Tratamendu bereziak: ile erorketa, eta abar.

ESTETIKA

- ✖ Depilazioak, elektrikoa
- ✖ Gorputz eta aurpegi tratamenduak
- ✖ Masaia eta solariuma

Baita ere hilean behin sendagilea, M. Esteban (6.180): gizentasuna, barizeak, meroterapia, e. a.

Kontsulta ezazu



BEGIRISTAIN KOPIAK

diseinu grafikoa

kopistegia

HP 3000CP ploterra



Erauskin plaza
(Urbi-etxea)
20200 Beasain
Tel.:943 16 09 74

Urdaneta, 18
20240 Ordizia
Tel.:943 16 14 69



ESKIA

Astun / Candanchu . .30.000 tik (irteera: 04-12)
Andorra46.000tik (irteera 03-12)
Autobusa joan/etorria, forfalta + pentsio erdiko hotela barne

BIDAIK HEGAZKINEZ

Tenerife	75.500etik
Lanzarote	85.300etik
Londres	82.400etik
Costa del Sol	85.000tik
Praga	69.900etik
Mallorca	42.525etik

BIDAIK AUTOBUSEZ

Madril	29.800etik
Paris	26.900etik
Sevilla	26.900etik
Lisboa	29.500etik
Amsterdam	36.900etik
Salamanca	32.800etik
Galizia	20.900etik
Costa del Sol	21.500etik



K. Nagusia, 38
☎ 943 80 53 11
BEASAIN





belén

DEKORAZIOA

ARGIZTAPENA

OPARIAK

LORA LEHORRAK

Urdaneta Kalea, 24 eta 25

☎ 943 16 22 87

ORDIZIA

